

**HAURREN LAGUN DIREN HIRIAK
AINTZATESPENAREN
VIII. DEIALDIAREN OINARRIAK**

EKINTZEN MEMORIA



Pasaian (Gipuzkoa), 2018ko apirilean

Erreferentziazko politikaria: Izaskun Gomez Cermeño

Harremanetarako: alkatetza@pasaia.net/943344034

Erreferentziazko teknikaria: Elisabete Astiasaran de Miguel

Harremanetarako: eastiasaran@pasaia.net / 943344034

INDIZEA

Numerado y paginado

ESKER ONA

(MEMORIA HONEN LANKETAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONA ETA ERAKUNDEEI)

Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planak (Eskubidean plana) ia 10 urteko ibilbide oparoa egin du gaurdaino.

Ibilbide hori ezinezkoa litzateke, Udalarekin batera, eskuz esku, egunez egun lanean diharduten eragileen elkarlan eta konpromisorik gabe.

Aipamen berezia egin nahi diegu Pasaia haur eta nerabeei. Haur eta nerabeen parte-hartzeak erakutsi digu zenbat dugun ikasteko gure herriko haur eta gaztetxoengandik.

Jarraian zerrendatuko direnek Eskubidean plana osatzen dute. Horien eguneroko lanari esker posible izan da ondoko orriotan aipatuko ditugun ekimen guztiak aurrera eramatea eta, ondorioz, Unicefeko Haurren lagun diren Hirien zibilura aurkeztea.

Pasaiako ikastetxeak:

- Pasaia Lezo lizeoa
- Karmengo Ama ikastetxea
- Anunciata ikastetxea
- Pasaia Lanbide Heziketa

Pasaiako udal zerbitzuak:

- Ludotekak
- Gaztelekuak
- Pasaia Badia Eskola
- Pasaia Musika Eskola
- Kuadrillategi
- Kale hezitzaileak
- Kirolguneak
- Harrera On
- Liburutegiak

Pasaiako elkarteak:

- Boveda
- Ekaitza

- Pasaia Kayak
 - Illunbe Arraun Elkartea
 - Sanpedrotarra Arraun Elkartea
 - Koxtape Arraun Elkartea
 - Trintxerpe Atletiko Kluba
 - Fama
 - Txassis
 - Pasaia pilotari eskola
 - Azkuene Ogi berri triatloi taldea
 - Trintxer Hockey eskola
 - Alkartasuna euskal dantza taldea
 - Lamiak dantza taldea
 - CD Trintxerpe
 - Pasaia Kirol elkarteak
- Pasaia Udala
- Pasaia haur eta nerabeak

AURKEZPENA

Pasaiako herriak haurren eta nerabeen aldeko konpromiso irmoa dauka. Adingabekoen eskubideen defentsan mugarrria izan zen 2008. urtea. Orduan, Pasaiako Udalak aho batez "Haur eta nerabeen babeserako adierazpen instituzionala" onartu zuen. Adierazpen hori onartzearekin batera, herriko adin txikikoak udalarentzako lehentasunezko populazio multzo bilakatu ziren. Horrela, Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana abian jartzeko udal sailarteko mahaia sortu zen, herriko gainerako eragileekin batera, gai honen inguruan elkarlana sustatzeko.

Ondoko orriotan Pasaiako Udalak sustatzen duen Eskubidean planean (2017ra arte Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana izenez ezagutua) azken hilabeteetan egindako lanaren laburpen bat egiten da, batez ere. Informazio hori osatu da hainbat sailetatik haur eta nerabeei zuzentzen zaizkien egitasmo eta ekintzekin.

Aipatu plana 2008an sortu zen, eta ordutik elkarlanean gabiltza Pasaiako Udala, herrian haur eta nerabeekin lan egiten duten elkarteak, hezkuntza komunitateak eta udal zerbitzuak.

Aurkezten dugun epe tartean egindako ibilbidea eragile guzti horien zein Pasaiako haur eta nerabeen elkarlan eta ahaleginaren emaitza da.

➤ Agiria lantzeko prozedura

Haurren aldeko jardueren memoria lantzeko, udalerrian azken urteetan haurren alde egin diren ekintza guztien azterketa egin dugu, eta 2017ko urtarriletik 2018ko martxora bitarreko ekintzetan jarri dugu arreta.

Memoria egiteko, elkarlanean aritu gara Eskubidean planaren (lehen haurren eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana) jarraipena egiteaz arduratzen den sailarteko mahaia osatzen dugun teknikari eta sailak: Gizarte Ekintza, Kirola, Kultura eta Hezkuntza, Euskara, Gazteria, Migrazio eta Aniztasun Arloa, eta Berdintasun Arloa.

Memoria egiteko garaian, honako helburu hauek jarri ditugu:

Haurren arloko jarduketak ezagutzea, bai Pasaiako Udaleko sailek sustatutakoak, eta bai Eskubidean planetik herri mailan sustatutakoak.

Egindako jarduketan datu kuantitatibo eta kualitatiboak ematea.

Egindako ekintzen hartzaileak ezagutzea.

PASAIAREN KOKAPEN GEOGRAFIKOA ETA SOZIOEKONOMIKOA

PASAI: LAU BARRUTI, HERRI BAT

Pasaiak lau barruti ditu: Donibane, San Pedro, Trintxerpe eta Antxo. Itsasoak eta portuak banatu egiten dituzte barruti horiek, eta ondorioz, euren arteko lur sailak ere sakabanatuta daude. Gainera, horien artean beste herri batzuk ere badaude. Esate baterako, San Pedrotik edo Trintxerpetik Antxora joan nahi bada (lehorretik), Donostiako lurretatik pasatu behar da; Antxotik Donibanera joateko, berriz, Erreenteriakoetatik eta Lezokoetatik.

Eraketa fisiko hori duen arren, udalerrriak izaera juridiko bakarra du. Hala ere, banaketa fisikoak erabat eragiten du kudeaketa publikoan, lau barrutiak aintzat hartu beharrekoak baitira zerbitzu edota programak martxan jartzeko orduan. Eta horrek, zer esanik ez, udalak egiten duen gastua hirukoiztu (Trintxerpe eta San Pedro askotan barruti bakartzat hartzen dira) edo laukoiztu egiten du (adibide gisa: hiru ludoteka, lau liburutegi, eta abar).



Pasaiako lau barrutiak desberdinak dira:

- **Donibane:** lau barrutietan zaharrena da Donibane eta badiaren ekialdean dago. Zaharrena izateaz gain, lur-azalera handiena duena ere bada, Jaizkibel mendiari esker, baita lurzoru urbanizatu gutxien duena ere, eta barruti horretan bizi da jende gutxien. ANTZINAKO HIRIGUNEA du eta badiaren ertzean zeharka-meharka egiten duen kale bakarra. Oinetxe ugari daude bertan, arrantzaleen etxeekin modu naturalean uztartuta, multzoari halako edertasun bikaina emanez. Ekialdetik, Hondarribiarekin egiten du muga; hegoalde, berriz, Lezorekin. Lur-azalera: 920 hektarea. Bitxikeria modura: Donibaneko kirol-taldeek kolore arrosa erabili ohi dute lehiaketetan.
- **San Pedro:** badiaren mendebaldean dago barruti hau, Donibaneren aurre-aurrean, eta honen antzera, ANTZINAKO HIRIGUNE ederra du. Trintxerperekin batera, etenik gabeko hiria osatzen du eta 85 hektareako lur-azalera du, gutxi gorabehera. Barruti honetan dago arrantza-kaia, eta

arrainarekin lan egiteko eta arraina izozteko egitura handiak eta modernoak ditu. San Pedroko taldeek kolore morea erabiltzen dute barrutia ordezkatzeko dutenean.

- **Antxo:** udalerraren hegoaldean dagoen barruti hau XIX. mendearekin batera sortu zen, bertan hainbat azpiegitura egin zirenean; hala nola, Norteko trenbidea, Madril-Paris errepidea, topoa edota portuko merkataritza-kaia. Ekialdetik, Errenteriarekin egiten du muga, eta mendebaldetik, Donostiarekin. Iparraldean, berriz, Portuko Agintaritza dago; Pasaiaiko Portua kudeatzen duen erakundea, alegia. Aipatutako mugen auzia ahaztu gabe, Antxok 15 hektareako lur-azalera du, gutxi gorabehera. Barrutiko taldeek erabiltzen duten kolorea txuri-gorria izaten da, eskuarki.
- **Trintxerpe:** Historiari erreparatuz, San Pedroren auzoa izan da, baina bere izaera lantzen jakin duen barrutia dela esan daiteke eta, egun, bi barruti osatzen dituzte. Trintxerpe nabarmen hazi zen arrantza-industria garatu zen urteetan, eta lau barrutietatik jendetsuena bilakatu zen. Baina 70eko eta 80ko hamarkadetako arrantza-krisialdiaren ondorioz, biztanle-kopurua nabarmen murriztu zen; hala ere, Trintxerpe da, gaur egunean ere, biztanle gehien dituen barrutia. 87 hektareako lur-azalera du, mugen auzia dela-eta, aldaketak izan ditzakeen arren. Trintxerpeko taldeek txuri-urdinez janzteko ohitura dute.

Segidan, barrutien idiosinkrasiak aipatu behar dira, ezaugarri bereziak baitituzte: koloreak (arrosa, morea, ...), jaiak, euren arteko antzinako liskarrak... Horrelakoak oso garrantzitsuak dira Pasaia ulertzeko eta ezagutzeko. Hori dela eta, barrutien izaeraren arabera egokitu beharko dira programak, zerbitzuak, ekintzak eta ekimenak, horiek eraginkorrak izango badira.


16428 biztanleko herria da Pasaia. 7.510 gizonezko eta 8.388 emakumezko; genero-datuak nahiko orekatuta daude herrian. Populazio horretatik % 29 Euskal Autonomia Erkidegotik at jaio zen, eta % 8 atzerrian. Izan ere, migrazio-mugimendu guztietan erakarpen handia izan du Pasaiaiko portuak. Oso garrantzitsuak izan dira Galiziako eta Portugaleko migrazioak; eta azken hamarkadetan, beste lurralde batzuetako migrazioak ere ugalduta egin dira.

Ekonomiari dagokionez, udalerrria pobrea da. Gipuzkoako Foru Aldundiak txosten batean argitaratu zuenaren arabera, Gipuzkoako herri behartsuena da. Izan ere, batez besteko oinarri likidagarriaren sailkapenean udalerrien zerrendako azkena Pasaia izan da. Alegia, pasaitarrak izan dira azken urte fiskalean diru gutxien irabazi dutenak, eta hortaz, diru gutxien aitortu dutenak. Kontuan izan behar da Pasaia ez daukala industriarik, eta Portua udalaren eskumena ez denez, bertako jarduerengatik ez duela dirurik jasotzen. Beraz, udalak diru-sarrera gutxi dauka, eta eskuarki, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzten diru-laguntzei esker bizirauten du.

Pasaiaz ezin da hitz egin, elkarre-mugimenduaz hitz egin gabe, giza kapital handiko herria baita. Izan ere, udalerrriak era askotako elkarre ugari ditu. Gainera, elkarre pasaitarrak gizartearen benetako eragileak direla azpimarratu behar da. Herriarentzat oso garrantzitsua izan da udalaren eta elkarre arteko lankidetzak; horri esker, egiturazko komunitate-lana jorratzen ari baita.

Pasaia zenbakitan:

Pasaiaiko argazkia osatzeko, ikus ditzagun datu demografikoak. Azpiko grafikoan Pasaiaiko biztanleriaren eboluzioa ikus daiteke:



2018an 16428 biztanle ditu Pasaia. Horrela banatzen dira barrutien arabera:

Pasaiako biztanle kopurua, barrutien arabera banatuta	
Donibane	2288 biztanle
San Pedro	2988 biztanle
Antxo	5282 biztanle
Trintxerpe	5870 biztanle
GUZTIRA	16428 biztanle

16428 biztanle horietatik, **2972 biztanle 19 urtetik beherakoak** dira. Horrela banatzen dira adin tarte horretako herritarrek, adin tarte eta sexuaren arabera:

	0-4 urte	5-9 urte	10-14 urte	15-19 urte
Neskak	344	399	388	352
Mutilak	349	378	399	363
Guztira	693	777	787	715

Hona, Pasaia eta pasaitarrak gehiago ezagutzeko hainbat datu:

- ✓ Populazio dentsitatea: 1.566,67 herritar/km 2
- ✓ Lurrazala: 1059 Ha
- ✓ Pasaiako errenta per capita: 19.913 € (Gipuzkoakoa 31.146€ da)
- ✓ Langabezia tasa: %15,7 (2016an) (Gipuzkoakoa %13,2 da)
- ✓ Atzerrian jaiotako herritarrek: 1734 herritar.

HAUR ETA NERABEEI ZUZENDUTA, PASAIAKO UDALAK 2017an ANTOLATUTAKO EKINTZAK

Pasaiako Udaletik haur eta nerabeei zuzendutako ekintza eta egitasmoak bi multzo handitan bana ditzakegu: batetik, Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planetik antolatzen direnak; eta bestetik, Udaleko sail edo arlo bakoitzak antolatzen dituenak.

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO PLANA (ESKUBIDEAN PLANA)

Pasaiako herriak haurren eta nerabeen aldeko konpromiso irmoa dauka. Adingabekoen eskubideen defentsan mugarrria izan zen 2008. urtea. Orduan, Pasaiako Udalak aho batez "Haur eta nerabeen babeserako adierazpen instituzionala" onartu zuen. Adierazpen hori onartzearekin batera, Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana abian jartzeko udal sailarteko mahaia sortu zen, herriko gainerako eragileekin batera, gai horren inguruan elkarlana sustatzeko.

Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planak hiru ildo lantzen ditu.

- 1. Tratu onaren aldeko prebentzioa eta sustapena**
- 2. Elkarreak biziberritzea**
- 3. Adingabekoen aldeko harrera egokia sustatzea, jatorria edozein dela ere**

Hiru ildoek dituzte jomugan, lehentasunez, haur eta nerabeak. Euren beharrei erantzuteko lanean ari dira guztiak. Lehen ildoak tratu ona eta balio hezitzaileak lantzeko beharra ekarri zuen. Behar hori lantzea haur eta nerabeekin lanean ari diren eragile guztiei dagokie. **Ardura guztiena da, partekatua.** Horregatik, herriko hainbat eragilek lanean dihardu elkarlanean plana garatzeko.

Plana ez zen hutsetik abiatu. Gaur egun hiru ildoak plan beraren baitan bilduta badaude ere, bakoitzak bere ibilbidea egin du, planera ekarri aurretik:

1. ildoak: herriko hainbat gaztek arrisku-egoerako gertaerak bizi izan zituzten. Esku-hartzeak berehalakoa behar zuen izan, eta Gizarte Ekintza Sailak hartu zuen bere gain. Baina, aldi berean, halakoak berriro gerta ez zitezen prebentzio-lana behar-beharrezkoa zen: **tratu onaren aldeko prebentzioa eta sustapena** lantzeko sortu zen lehen ildoak. Prebentzio lana egitea, ordea, gizarte izaerako sail guztiei zegokien. Horrela, arazo horrek sailak elkarrekin lanean hasteko aukera ekarri zuen. Sailen arteko lan-mahaia sortu zen 2008an.

2. ildoak: **elkarreak biziberritzekoa**, elkarreen behar eta kezkei erantzuteko helburuarekin sortu zen. Euskara Sailak urteak zeramatzan haur eta nerabeen hizkuntza beharrei erantzuteko elkarrekin hitzarmenen bidea lantzen. Begirale euskaldunak jartzeko eskakizunak, ordea, ez zuen arrakasta handiegirik lortzen; begiraleen erreleboa egitea zaila zen, boluntario lana krisian zegoen. Gainerako sailek ere kezka bertsuak jasotzen zituzten elkarrekin. Krisi egoera hori elkarrekin harremana zuten sail guztiek elkarrekin landu beharrezkoa zen. Elkarreen kezka eta beharrak eurekin batera aztertu eta erabaki behar ziren, egoera hobetzeko estrategiak eta irtenbideak landuz. Horri erantzuteko, elkarreen gunea sortu zen.

3. ildoak: Pasaia askotarikoa da. Pasaitarrak jatorri askotarikoak dira. Aniztasun hori lantzeko sortu zen hirugarren ildoak, **jatorria edozein dela ere, adingabekoen aldeko harrera egokia sustatzeko** helburuarekin. Hurrek eta gazteek aukera berak izan ditzaten, aniztasunean bizi garela aldarrikatzea eta aniztasuna egunerokotasunean era positiboan aintzat hartzea du xede.

Ildo bakoitzak bere jatorria du, baina lehen ildoak tratu ona eta balio hezitzaileak (tratu ona, errespetua, aniztasuna, berdintasuna, hizkuntza, kultura, elkartasuna, bizikidetzak edota parte-hartzea) modu orokortuan lantzeko beharra ekarri zuen: ildo guztietan zeharka lantzeko beharra, alegia.

Helburu komun horrek bildu zituen ildo guztiak plan berera, txapel beraren baitara: haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planera (egun Eskubidean plana), hain zuzen ere.

Plan orokor horren baitan herriko hainbat eragile elkarrekin lanean hasi ziren. Horretarako, elkarguneak eta erabakiguneak sortu ziren: batetik, udal barnean gizarte izaerako sailen arteko elkarlanerako; eta bestetik, herrigintzako hainbat eragileren arteko elkarlanerako.

Planetik antolatzen diren ekintzen atzean planean biltzen diren eragileak (Udala, udal zerbitzuak, elkarteak eta ikastetxeak) zein zenbait sail/arlo (euskara, gazteria, kirola, kultura eta hezkuntza, aniztasuna eta migrazioa, gizarte ekintza eta berdintasuna) ditugu¹. Ekintza horien antolaketaren oinarria dira parte-hartzea eta elkarlana.

Esan bezala, Eskubidean planak 3 lerro estrategiko ditu. Lerro bakoitzak helburu eta ekintza zehatzak dauzka. Planak 10 urteko ibilbidea dauka, eta ibilbide luze horretan hainbat ekintza sistematizatuz joan gara eta beharren arabera ekintza eta egitasmo berriak jarri dira martxan. Guztiak aipatzea ezinezkoa zaigunez, jarraian azken 12 hilabeteetan antolatutako ekintzak zerrendatuko ditugu:

1. LERRO ESTRATEGIKOA: PREBENTZIO ETA TRATU ONAREN SUSTAPENA

Lerro estrategiko honen helburuen artean dugu herritarrak eta eragileak haurren eskubideen eta tratu onaren aldeko egitasmoa erakartzea. Horrela, haur eta nerabeen eskubideak gizarteratu dira, horien gaineko sentsibilizazioa landu da, eta aldarrikapen-ekintzak burutu dira:

Jaietako ekintzak

Pasaia lau barrutitan banatuta dago. Barruti bakoitzak bere jai propioak dauzka. Barrutietako jai batzordeen egitarauaren barruan, haur eta nerabeen eskubideen aldarria egiteko, "Haur eta nerabeen eskubideen alde... Busti zaitez!" goiburupean zenbait ekintza antolatzen da jai batzordeen programazioaren barruan. Ekintza horien antolaketan parte hartzen dute herriko elkarteek eta baita norbanakoek ere. 2017. urtean honako ekintzak burutu ziren:

- San Pedro: haurren lasterketa eta futbito txapelketa.
- Antxo: pala txapelketa.
- Trintxerpe: haurren lasterketa eta apar festa.
- Donibane: familien lasterketa, gaztetxoek lasterketa, apar festa eta jolasak.

Azaroaren 20ko egitaraua

1 Ikusi barne eta kanpo antolaketaren atala

Azaroa haur eta nerabeen eskubideen hilabetea dugu Pasaian. Azaroaren 20an ospatzen den haurren eta nerabeen eskubideen nazioarteko egunaren harira egitarau oparoa antolatzen dugu urtero, adin txikikoen eskubideak aldarrikatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko. 2017an hiru asteko egitaraua antolatu zen, herriko elkarte, udal zerbitzu eta ikastetxeekin elkarlanean. Besteak beste, ekintza hauek antolatu ziren:

- ✓ Azaroak 13: *Murren bidaia* txotxongiloak Antxoko Kultur Etxean.
- ✓ Azaroak 14: jolasak eta txokolate-hartzea Donibaneko frontoian.
- ✓ Azaroak 15: ipuin kontaketa San Pedroko liburutegian.
- ✓ Azaroak 16: *Murren bidaia* txotxongiloak Trintxerpeko ludotekan.
- ✓ Azaroak 17: ekintza bereziak Pasaiaiko hezkuntza komunitateetan goizean. Batukada, kalejira eta txokolate-hartzea, arratsaldean, Trintxerpen.
- ✓ Azaroak 20: gidaliburuaren sinadurarako ekitaldi publikoa planeko eragile guztiekin.
- ✓ Azaroak 20-25: *Adingabekoak geureak ere badira* SOS Arrazakeriako erakusketa Donibanen.
- ✓ Azaroak 21: perkusio tailerra Antxon.
- ✓ Azaroak 23: kale antzerkia San Pedroko frontoian.
- ✓ Azaroak 24: antzerki tailerra Trintxerpen.
- ✓ Azaroak 27: ipuin kontaketa Trintxerpeko liburutegian.
- ✓ Azaroak 28: ipuin kontaketa Antxoko Kultur etxean.
- ✓ Azaroak 29: kale antzerkia Antxon.

Azaroan antolatutako ekintza horien artean, aipamen eta azalpen berezia merezi dute hainbat ekintzak:

- Azaroaren 20an, haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko egunean bertan, Donibaneko kulturgunean **ekitaldi publiko**a egin zen. Betan parte hartu zuten planean murgilduta dauden eragile guztiek (politikariak, udal teknikariak, ikastetxeetako ordezkariak, udal zerbitzuetako hezitzaileak eta elkarteetako entrenatzaile eta begiraleak). Izan ere, ekitaldiaren helburuetako bat zen Pasaian haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko lanean ari diren eragile guztiak biltzea da eta horiek urte osoan egiten duten lana aintzat hartu eta aitortzea.

Ekitaldian bertan eragile guztien artean landutako "Pasaiaiko udalerriko haur eta nerabeekin aritzeko gidaliburua" aurkeztu zen, eta jendaurrean sinatu zuten eragile guztiek banan-banan.

Pasaiaiko udalerriko haur eta nerabeekin aritzeko **gidaliburuaren** funtsa honakoa da: alde zuzenetik lanerako adostu den hainbat oinarri eta praktika ezartzea, Pasaiaiko Udalarentzat lanean diharduen eta/edo udalaren laguntza jasotzen ari den lagun edo lagun-talde orok erabil ditzan.

Gidaliburua Eskubidean planean dago kokatuta. Plan horretan jasotakoari jarraiki, haurren eta nerabeen taldea garrantzizkoa da. Adin txikikoak oinarrizkoak dira udalerraren orainerako eta etorkizunerako. Hori dela-eta, haurren eta nerabeen garapenean haiengandik gertu dauden helduek (familia, eskola, herria) ezinbestean ziurtatu beharko dute haurrek eta nerabeek euren eskubideen erabilera egiten

dutela. Izan ere, adingabekoek eskubideak eta betebeharrak dituzte, bermatu eta bete beharrekoak; eta horiek behar fisiko eta materialetatik harantzago, arlo soziala, emozionala eta sexuala hartzen dute barne.

- Hezkuntza komunitateetako ekitaldi eta ekintzak: Udalak eta hezkuntza komunitateek hala adostuta, herriko ikastetxeek curriculumean sartuta daukate haur eta nerabeen eskubideen gaia. Azken urteetan, iraila eta azaroa bitartean adin txikikoen eskubide eta betebeharrei lotutako edukiak lantzen dituzte. Azaroaren 20ko astean, ostiralez, lanketa horren emaitza gizarteratzeko ekitaldia antolatzen du ikastetxe bakoitzak. Ikasleek sortutako mural, collage, ipuinak... baliatuta festa egiten dute. Ekitaldi horretan gurasoek parte hartzen dute askotan.

Horrela, ikastetxeetako irakasle, ikasle eta gurasoek, eskolako agendan barneratutako egun berezi bezala bizi dute azaroaren 20a.

2. LERRO ESTRATEGIKOA: ELKARTEAK BIZIBERRITZEA

Eskubidean planeko 2. lerro estrategikoaren helburua da herriko elkarteak biziberritzea. Jarraian, lerro honetatik antolatzen diren ekintza esanguratsuenak aipatuko ditugu:

➤ **Elkarteen eguna:**

2010. urteaz geroztik urtero ospatzen da. Ekintza honen helburua da hurrei euskarazko jardueraz gozatzeko eta, bereziki, jolasteko aukera eskaintzea. Halaber, elkarteek urte osoan eskaintzen dizkieten jarduerak ezagutzeko aukera ematen du ekintzak.

- ✓ 2016an apirilaren 30ean egin zen San Pedron. 15 elkartek hartu zuten parte ekintzaren antolaketan. 120 haur eta guraso elkartu ziren ekintzan.
- ✓ 2017ko urriaren 7an Antxon egin zen elkarten egunaren VIII. edizioa. 8 elkartek hartu zuten parte ekintzaren antolaketan.

➤ **Elkarteen gala**

Elkarteak biziberritzeko ildoaren barruan, elkarteetako hezitzaile eta entrenatzaileen lan boluntarioa eskertu eta aitortzeko helburua dugu. Elkarteek herriari, eta bereziki adin-txikikoei egiten dieten eskaintza oparoa eta horrek herriari ematen dion bizitasuna aitortzeko tarte dugu. Helburu hori lantzeko, hainbat ekimen burutu dugu, begiraleen eguna eta begiraleen gala esaterako.

2016ko maiatzaren 27an egin zen Trintxerpen. Elkarten, eta bereziki, elkarteetako hezitzaile eta entrenatzaileen lana aitortzea du helburu nagusi. Bi urtez behin egiten da. Pasaian haur eta nerabeekin lan egiten duten 20 elkarte inguru daude. Elkarte horietan 140 hezitzaile inguru aritzen dira. Pasaiako Udalak omenaldia egin zien haur eta nerabeekin lanean diharduten elkarte horiei, egiten duten lana eskertzeko.

3. LERRO ESTRATEGIKOA: ADINGABEKOEN ALDEKO HARRERA ONA SUSTATZEA, HAIEN JATORRIA EDOZEIN DELA ERE

Azken lerro estrategikoaren helburua da adingabekoen aldeko harrera ona sustatzea, haien jatorria edozein dela ere. Helburu hori lortzeko, zenbait egitasmo

eta ekimen burutzen da:

➤ **HARRERA ON PROGRAMA:**

Programa honen helburu nagusia da haurrek elkarren artean jolas egin dezaten, elkar ezagutu dezaten, eta jolasgune bat izan dezaten, haurrak izaten jarraitzeko. Adingabeko iritsi berrientzako eskola-orduz kanpoko jardura da; euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiliz, jolas egiten dute, nora iritsi diren ulertzen dute, eta inguru berrira ohitzen dira. Hori guztia, nor bere kultura-identitatearen jabe dela, eta aniztasunaren aldeko errespetua sustatzen dela. Doako programa hau 6 eta 16 urte bitarteko haurrentzat eta gazteentzat da, Euskal Herritik kanpo etorritakoentzat, Pasaian erroldatuta daudenentzat, edo Pasaian hezkuntza-komunitateren batean ikasketak egiten ari direnentzat.

- 2016/2017 ikasturtean 10 haur etorri berrik hartu zuten parte Trintxerpe-San Pedron osatutako taldean.

- 2017/2018 ikasturtean 13 haur etorri berri ari dira parte-hartzen programa Trintxerpe-San Pedron osatutako taldean.

Hezkuntza gunetik oso positiboki baloratzen da Harrerea On gunea. Ikastetxeetako orientatzaileen iritzian, begi-bistakoak dira gunean parte hartzen duten haurrei jardura honek eragindako onurak, eta haurrek egiten dituzten aurrerapausoak.

➤ **ANIZTASUNA LANTZEKO SAIOAK LIBURUTEGIAN:**

6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako egitasmoa da. Aniztasuna, desberdinen aldeko errespetua eta elkarbizitzaren aldeko balioak sustatzen dira, euskaraz hitz eginez eta jolastuz. Astean behin ordubetez Antxoko liburutegian biltzen dira haurrak hezitzaile batekin. 2016ko urrian jarri zen martxan. 13 haurrek parte hartzen zuten 2016/2017 ikasturtean (hori da taldearen gehieneko kopurua). Saio hauean etorri berriek lehentasuna daukate.

2017/2018 ikasturtean ere 13 haurreko taldea osatu da, eta hainbat haur itxaron zerrendan geratu dira.

Ekimena beste barrutietara zabaltzeko asmoa dute antolatzaileek.

➤ **HARRERA PROTOKOLOA:**

Etorri berriei harrera ona egiteko, Harrera Protokoloa onartu zuen Pasaiaiko Udalbatzak 2016ko uztailean. Harrera protokolo hori osatzeko, parte-hartze prozesu bat egin zen herrian. Prozesu horretan parte hartu zuten bai herriko nerabeek eta baita beste herritar eta eragile batzuek ere.

* **Harrera protokoloaren partaidetzako prozesua:** Pasaiaiko ikastetxeetako 9-17 urte bitarteko nerabeekin saio bereziak egin ziren, Pasaiaiko harrera protokoloa osatzeko. Zenbait ikastetxetako ikasle talde batek Pasaiaera etorri berriak diren nerabeei harrera egiteko moduak landu, eta proposamenak egin zituzten.

(*parte-hartze prozesuen atalean azaltzen da sakonago)

➤ **ONGI ETORRI, GAZTE!:**

Harrera protokoloa udalbatzarrean onartu eta gero, nerabeek egindako proposamenak gauzatzeko, egitasmo bat jarri zen martxan Migrazio eta Aniztasun Arlotik: aniztasuna eta parte-hartzea uztartzen dituen *Ongi etorri, gazte!* parte-

hartze egitasmoa.

Egitasmoaren helburu nagusia da Pasaiaiko gazte eta nerabeek gazte etorri berriei harrera egokia egitea, aniztasuna eta gizarteratzea landuz, eta nerabe eta gazteen ahalduntzea sustatuz.

Prozesua 2016ko azaroan hasi zen eta egun oraindik martxan dirau.

Prozesua 12 eta 17 urte bitarteko pasaitar guztientzat irekia da. Udal zerbitzuak eta ikastetxeak bidelagun izan ditugu.

2016/2017 ikasturtean nerabeei harrera egiteko hiru ekintza proposatu eta antolatu zituzten nerabeek: San Pedro-Trintxerperi buruzko bideoa (bideoa egiteko bideogintza tailerra antolatu zen), futbito txapelketa eta Antxo-Tour festa.

2017/2018 ikasturtean Antxoko barrutian zentratu da egitasmoa. "Antxo nerabeen begietatik" irudikatzen ari dira gaztetxoak. Prozesuaren bideoa eta Antxori buruzko bideoak egingo dira.

2016-2017 ikasturtean 265 neska-mutilek parte hartu zuten momenturen batean. Ikasturte honetan, berriz, 90 nerabetik gora ari da parte hartzen.

*(*parte-hartze prozesuen atalean azaltzen da sakonago)*

➤ **NERABEENTZAKO APLIKAZIOA**

Ongi etorri, gazte! egitasmoaren harira, nerabeentzako aplikazio bat martxan jartzeko prozesua abiatu zen 2017an. Horren helburua da da nerabeek, mugikorreko aplikazio baten bidez, hainbat informazio eskuragarri izatea: antolatzen diren ekitaldiak, udal zerbitzuen eskaintza, elkarteen eskaintza...

Aplikazioan igoko dira nerabeek *Ongi etorri, gazte!* egitasmoan sortzen dituzten informazio eta euskarriak (nerabeak biltzeko lekuak, erreferentziazko tokiak, gustuko lekuak, etorri berriei Pasaia gazteen begietatik nolakoa den erakusten dizkieten bideoak...).

BESTE HAINBAT HELBURU ETA EKINTZA

Hiru lerro estrategikoetatik harago, Eskubidean planean beste hainbat helburu, egitasmo, tailer eta ekintza jorratu eta burutu dira.

Hezitzaileen prestakuntza

Planean garrantzia handia ematen diogu herriko haur eta nerabeekin lan egiten duten langile, irakasle eta hezitzaileen zein udal teknikari eta politikarien prestakuntzari. Lehentasunezko lan-ildoak da prestakuntzarena.

Prestakuntza jarraitua zein espezifikoa antolatzen ditugu, eragileen eskaera eta beharren arabera. Jarraian aipatzen dira azken hilabeteetan Udalak antolatutako prestakuntza saio garrantzitsuenak:

- ✓ **BEGIRALE IKASTAROA:** bi urtez behin antolatzen da begirale ikastaroa Pasaian, bi behar nagusiri erantzuteko: batetik, Pasaiaiko elkarteetan dagoen begirale beharrari aurre egiteko, bai dauden begiraleen erreleboa egiteko, eta baita haur/nerabe gehiagori erantzun ahal izateko; eta bestetik, begirale euskaldunen beharrari erantzuteko, horrela haur eta nerabeen hizkuntza eskubideak bermatuko baitira. 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktikoko dituzte ikastaroak. Ikastaroa beka-sistema baten bidez finantzatzen zaie pasaitarrei eta, pasaitar ez izan arren, Pasaian haur eta nerabeekin lan egiten duten

elkarteren bateko kide direnei.

2017/2018 ikasturtean 18 gazte ari dira ikastaroa egiten.

- ✓ KIROL ESKOLETAKO HEZITZAILE BEZALA ARITZEKO IKASTAROA ERREALA FUNDAZIOAREKIN. Pasaiaiko ikastetxeetako edota herriko hockey eta futbol eskoletako 23 pertsonak egin zuten.
- ✓ HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO PRESTAKUNTZA:
 - Farapirekin 2017ko azaro eta abenduan 3 orduko hiru saio egin ziren, gai hauek lantzeko: haurrak subjektu politiko gisa, eta parte-hartzea. 16 pertsonak eman zuten izena.
 - Jardunaldia 2016ko urrian egin zen, eta prestakuntza teorikoa eta praktikoa landu ziren. Hainbat eragiletako 45 partaide bildu ziren jardunaldian.
- ✓ INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKASTAROA: udal zerbitzuen eskariz antolatu zen. 2 orduko 3 saio antolatu ziren 2017ko maiatzean eta 14 pertsonak parte hartu zuten.
- ✓ ANIZTASUNAREN LANKETA ANTZERKI ESKOLAN: 2016ko irailaren 28 eta 29an egin zen. Antzerkiaren bidez, haur eta nerabeekin aniztasunaren gaia lantzeko teknikei buruzko saioetan 9 hezitzailek parte hartu zuten.
- ✓ ANIZTASUNA AISIALDI ELKARTEETAN: Pasaiaiko bi aisialdi taldeei, aniztasunari buruzko prestakuntza eskaini zitzaion. 9 hezitzailek parte hartu zuten.
- ✓ HAURREN BABESARI BURUZKO TREBAKUNTZA: urtarrilean udal zerbitzuetako hezitzaileekin burutu zen saio bat. Bigarren saio bat egin zen otsailean, kasu praktikoak aztertzeko. Ekainaren 10ean, berriz, Boveda aisialdi elkarteko hezitzaileei eskaini zitzaion saio bera.
- ✓ DROGEN KONTSUMOA: ikastetxeetan drogen prebentzioaren inguruko lanketa egiten da hainbat aditurekin. Horrez gain, nerabeei zuzendutako udal zerbitzuetako hezitzaileekin (kuadrilategi, gaztelekuak eta kale hezitzaileak) Ailaket elkartearekin bi orduko bi saio egin dira 2018ko martxoa eta apirila bitartean.

Perkusio tailerra

2017an kale-hezitzaileen Antxoko zerbitzuan jatorri askotariko haur batzuen eta haur ijito batzuen artean arazo larria izan zen. Jatorri askotariko haur askok zerbitzu horretara joateari utzi zioten, haur ijitoen beldur zirelako. Gainera, haur ijito horiek jokabide arrazista agertzen zuten. Arrazismoa eta elkarbizitza lantzeko asmoz, Migrazio Arlora jo zuten laguntza bila. Udal zerbitzuen gunean egoera plazaratu zen, eta Pasaia Musikalekin batera, programa bat diseinatu genuen aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko. Arazoa izandako haurrei perkusio tailerrera joateko gonbidapena egin zitzaion.

Perkusio tailerra apiriletik ekainera landu zen. Saio bakoitzean, musikaren bitartez, aniztasuna eta talde-lana landu ziren.

2017ko ekainera arte 11 hurrek hartu zuten parte: brasildar batek, marokoar batek, kolonbiar batek, salvadortar batek, nigeriar batek eta 6 haur ijitok.

2017ko irailetik aurrera 9 hurrek hartu zuten parte (eta parte hartzen ari dira 2018.urtean): ghanatarrek, nigeriarrek, ekuadortarrek eta ijitoek.

Hurrek, Pasaia Musikaleko begiraleek eta kale hezitzaileek, alegia, guzti-guztiek, oso esperientzia ona eta positiboa izan dela adierazi dute. Are gehiago, datorren ikasturterako tailerra mantentzeko eskatu digute. Besteak beste, instrumentu hauek landu dituzte: txalaparta, kutxa flamenkoa eta dyembea.

Ikastaroa bukatutakoan kontzertu-entzunaldi bat egin zen ekainaren 10ean Pasai Antxoko Zumardian, eta Pasaiaiko aniztasunaren astearen barruan kokatu zen.

Irailan berriz jarri zen programa martxan, haur horiekin elkarbizitza landu zedin, eta haiek aniztasunaren inguruko gogoeta egin zezaten. Hilabetearen behin biltzen ari dira, eta dena ondo badoa, 2018ko ekainean ekitaldia egingo dute.

Nazioarteko kanpaina humanitarioak babesteko elkarlana beste erakunde batzuekin

PANDA RAID

Panda Raid automobilismoko elkartasun proba bat da; Madrilen hasi, eta 4000 kilometro egin ondoren, Marokon bukatzen den zeharkaldia. Don Bosco ikastetxeko ikasleek proba horretan parte hartu nahi zuten, eta bertako irakasleek laguntza eskaini zieten.

Pasaiaiko Udala elkarlanean aritu zen haiekin, diru-laguntza eskainiz. Ikasleek bi auto modelorekin hartu zuten parte, eta bakoitzean 20 kilo eskola-material eraman zuten, Marokoko ikastetxeetan eskolatzea sustatzeko. Proban parte hartu eta gero, ikasleek erakusketa eta hitzaldia prestatu zituzten, Pasaiaiko ikastetxeetako haur eta gazteei esperientziaren berri emateko. Horrela, Panda Raiden parte hartu zuten gazteak herriko ikastetxeetara gerturatu ziren, beraien esperientzia ikasleekin partekatzerara.

ERAKUSKETAK

SOS Arrazakeriarekin bi erakusketa egin dira:

- ✓ "Ongi etorri, errefuxiatuak!": maiatzak 29-ekainak 1, Trintxerpen; ekainak 1-4, Antxon. DBH 3-4. mailako ikasleekin bisita gidatuak egin zituzten Pasaiaiko ikastetxeek.
- ✓ "Adingabeak geureak ere badira": Azaroak 20-25 bitartean, Donibanen.

HAURREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO EKIMENA: Oarsoirriak

Oarsoirriak egitasmoa 2012an jarri zen martxan. Oarsoaldeko lau herrik osatzen dute egitasmoa: Errenteria, Oiartzun, Pasaia eta Lezo.

Oarsoirriak egitasmoak bi oinarri ditu erdigunean: haurren parte-hartzea eta euskara. Beste bi oinarri ere baditu ekimenak: balio hezitzaileak eta auzolana.

Ekimenean herriek beren egitarau eta proiektu propioak antolatzeko autonomia dute. Horiek eskualde mailako ekimenekin tartekatzen dira. Herrietako familia, ikastetxe, udal eta eragileek parte hartzen dute elkarlanean.

Pasaian *Pasaiaiko irrizaleak* izenarekin ezagutzen da egitasmoa. Barrutietako familiek eta bereziki adin txikikoek erabakitzen dute zein ekimen eta noiz burutu herrian, eta urte osoko egitaraua antolatzen dute. Haurrak ekintza horien antolaketa lanetan egoten dira.

2013an herriko nerabeekin Pasaia barrutietan banatuta egoteak eta erdian badia izateak lagunekin harremanak izateko sortzen zizkien arazoak landu ziren, eta hainbat proposamen egin zituzten nerabeek. Urte horretan, Tonucci Pasaia bisitan etorri zela baliatuz, nerabe horiek beren proposamenak aurkeztu zizkieten Tonucci berari zein herritarrei.

Egun, Pasaia irrizaleak Donibaneko liburutegiarekin eta Albaola kultur faktoriarekin elkarlanean, Itsasontzia eraikitze prozesuan ari dira buru belarri. Donibaneko liburutegi berria irekitze da (inaugurazioa maiatzean izango da eta haur zein nerabeek aktiboki parte hartuko dute). XXI. mendeko liburutegien eredu jarraituko duen proiektua ari dira lantzen liburutegian. Proiektu horren oinarrien artean herritarren (eta noski, haur eta nerabeen) parte-hartzea dago. Oinarri hori hainbat egitasmoren bidez ari da lantzen. Tartean, Oarsoirriarekin elkarlanean, liburutegian haurren txokoa izango den espaziorako altzari bat ari dira eraikitzen familiak elkarrekin. Haurrek, altzari horren diseinua egin zuten (Itsasontzi bat) eta Albaola faktoriakoak, herritarrekin auzolanean, diseinu hori egi bihurtzen ari dira: haurrek irudikatutako egurrezko itsasontzia. Itsasontzi hori, elkarrekin muntatu dute apirilean. Datozen hilabeteetan haurrek, Donibaneko jubilatutako taldearekin batera, itsasontziaren apaintetari ekingo diote.

Halaber, aipatu beharrezkoa da Kuadrillategi egitasmoko nerabe talde bat Donibaneko historiari buruzko dokumentala prestatzen ari dela inaugurazioari begira. Beraiek ari dira gidioa egiten, materiala biltzen, elkarriketak egiten, grabazioak egiten, muntaia prestatzen...

Bestetik, datozen hilabeteetan martxan jarriko den Pasaia Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorren partaidetzako prozesuan parte hartuko dute, familien eta herriko txikien behar eta proposamenak lantzeko.

UDAL SAILEK BURUTUTAKOAK

Eskubidean planetik harago, udal sail bakoitzak, haur eta nerabeentzako azken 12 hilabeteetan antolatu dituen ekintza eta egitasmoak azalduko dira jarraian.

EUSKARA SAILA

➤ **PASAIJA OSORIK BIZITZEKO komunikazio eta ekintza plana**

Helburuak:

- ✓ Pasaia haur eta nerabeen hizkuntza eskubideak bermatzeko aisialdi eskaintza euskaraz egiteak duen garrantziaz jabeaztea.
- ✓ Eskaintza euskaraz izan dadin gurasoen eskaera sustatzeko baliabideak lantzea. Gurasoen euslida saioak.
- ✓ Elkarrekin gutxiengo konpromiso batzuk adostea, jarduerak euskaraz eskaini ditzaten.
- ✓ Hezitzaileei baliabideak eta hizkuntza estrategiak eskaintzea, jarduerak euskaraz egin ditzaten.

Nork antolatua:

- ✓ Pasaian euskararen erabilera sustatzeko lanetan ari diren eragileak biltzen dituen **Euskararen Aholku Batzordeak**, udalerriko ikastetxeek egindako eskaerari erantzunez, diseinatutako plana da.

- ✓ Partaideak: herriko ikastetxeak, euskaltegiak, merkatori elkarteak, Eskubidean planeko koordinatzailea, Kuadrillategi proiektuko koordinatzailea, Oarsoirriak ekimeneko ordezkaria, barrutietako euskara taldeetako ordezkariak, Udaleko euskara saileko ordezkari tekniko eta politikoak.
- ✓ Ohiko partaideez gain, aisialdiko ekintza plan honetan udal kirol teknikariaren laguntza eta ekarpena izan dugu.
- ✓ Planaren diseinuan parte-hartze zuzena izan dute gainera:
 - Ikastetxeetako guraso elkarteetako kideek eta gela-buru diren gurasoek
 - Elkarte guztietako ordezkariak

Ekimenaren hartzaileak

- ✓ Haur eta nerabeentzat jarduerak antolatzen dituzten elkarteak eta hezitzaileak (irabazi asmorik gabekoak, boluntarioak).
- ✓ Eskaintza pribatua egiten duten elkarteak (irabazi asmoa dutenak).
- ✓ 6-16 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak

Aurrekontua

- ✓ Sentsibilizazio euskarriak: 18.000 €
- ✓ Elkarte, hezitzaile eta gurasoentzako ekintzak: 10.000 €

➤ **KUADRILLATEGI EGITASMOA:**

Helburuak: Kuadrillategi egitasmoa, parte-hartzean oinarritzen den eta gazteekin batera lantzen den aisialdi eskaintza da.

Gazteen aisialdi kofradia horretan ez da aisialdi eskaintza hutsa garatzen; aisialdi hutsa izan ez dadin saiaterik dira behintzat. Gazteek berek bilatu, bideratu, prestatu eta gozatu beharreko ekintzak dira. Hezitzaileek horretarako baliabideak bilatzen, eskuratzen eta erabiltzen laguntzen diete. Baina, batez ere, gazteek ondo pasa dezaten bilatzen da.

Ekimenaren jasotzaileak: 12-16 urte bitarteko nerabeei zuzendutako egitasmoa da. Egun 150 gaztek parte-hartzen dute.

Aurrekontua: 68.985 €

➤ **FAKTORIA EGITASMOA:**

Helburuak: Kuadrillategi egitasmoaren jarraipena da. Helburu bera dute. Egitasmoa gazteen interesetatik abiatzen da. Urtero gazteek aukeratutako proiektu bat lantzen dute.

Ekimenaren jasotzaileak: 16-18 urte bitarteko Lezo eta Pasaiako nerabeei zuzendutako egitasmoa da. Egun 20 gaztek parte-hartzen dute.

Aurrekontua: 3.450 €

GAZTERIA SAILA

Hautzaro eta gazteriako politika integralak garatzen dituen udal sustapen departamentua da.

Honako zerbitzu, ekipamendu eta egitarau hauek gauzatzen ditu urtero:

➤ **Udal ludotekak:**

Gizarte eta heziketa ekipamenduak dira. Udal ludotekek haurrei jolaserako eta sozializaziorako lekua eskaintzen diete. Era berean, euskara aberasteko lekuak dira. Udal ludotekak hiru egoitza ditu: Trintxerpe-San Pedron, Donibanen eta Antxon. Jarduerak urritik ekainera bitartean egiten dira, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 8etara eta larunbatetan goizeko 11etatik 13:00etara. 4-13 urte bitarteko A, B eta D ereduak haurrentzat dira.

Partaide kopurua: 2018/19 ikasturtea: 311 haur

Aurrekontua: 143.688 euro, mantentze-lanak eta garbiketa kontuan hartu gabe.

(*info gehiago: <http://www.pasaia.eus/eu/ludotekak>*)

➤ **Udal gaztelekuak:**

Hezkuntza- eta gizarte-ekipamenduak dira. Gaztelekuak gazteei aisialdia hezitzaileko lekua eskaintzen die, beren emantzipazio eta sozializazioan lagunduz. Gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzen da. Ekipamendu eta egitarau normalizatuen prebentzio funtzioak arrisku jokoetan berebiziko garrantzia dauka. Trintxerpe-San Pedro eta Donibaneko gaztelekuak duela urte batzuk ireki ziren, eta oso harrera ona dute gazteen artean. Barruti guztietara hedatzea funtsezkotzat jotzen zenez, Antxon ere gazteleku irekiko da laster, hemendik 2 hilabetera edo, obrak egiten ari baitira.

Partaide kopurua: 2018/19 ikasturtea: 138 gazte.

Aurrekontua: 89.120 euros, mantentze-lanak eta garbiketa kontuan hartu gabe.

Antxoko gaztelekuaren obra eta ekipamendua: 96.000 euro.

➤ **Haur eta gazteentzako ikastaroak:**

Ikastaroek izaera soziokulturala dute. Urtean zehar aisialdi aktiborako aukera bat eskaini nahi zaie haur, nerabe eta gazteei. Ikastaroak astean zehar egun desberdinetan ematen dira.

Ikastaro eskaintza honakoa da:

- ✓ 6-11 urte bitartekoentzat: Patchwork, eskulanak eta marrazketa, buztina eta pintura.
- ✓ 12-16 urte bitartekoentzat: Manga, komikiak eta ilustrazioa; marrazketa eta pintura; eta hip-hop dantza.
- ✓ 16-30 urte bitartekoentzat: marrazketa eta pintura, argazkilaritza.

Partaide kopurua: 55 haur eta gazte.

Aurrekontua: 17.860 euro.

➤ **Udaleku Irekiak:**

Udaleku irekien xedea ondorengoa da: hurrei udan aisia eta denbora libreko aukera bat eskaintzea. Udalekuen bitartez, hurrek udan gozatzeko aukera izango dute, eta bide batez, ikastetxeetan urtean zehar bereganaturiko euskara erabiltzeko gune egokia izango dute. Haur Hezkuntzako azken mailako eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleak diren Pasaiaiko haurrentzat dira. Urteak dira familiek ordutegia zabaltzeko eskatzen digutela, alde batetik, beraiek lan ordutegiak hobeto moldatzeko eta, bestetik, inguruko udalekuen eskaintzara berdintzeko. Aurten ordutegiak ordu erdiz zabaltzea proposatzen da, 10:00etatik 13:00etara izan beharrean, 9:30etik 13:00etara.

Iaz partaidetzako Udaleku Irekiak sortzen hasi ginen: ostiraletan hurrek batzarrak egiten zituzten, haien proposamenak, hausnarketak eta programazioa lantzeko.

Partaide kopurua: aurten 360 plaza.

Aurrekontua: 75.500 euro.

➤ **Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia:**

Gazteria Departamentuak Tolosako Ekimen Zentroarekin batera urtero antolatzen du oso arrakastatsua den jaialdi hau. Aurten 26. edizioa ospatuko dugu. Eskaintzen diren ikuskizunak Pasaiaiko Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako hurrei eta udal ludoteketako eta aisialdi taldeetako hurrei zuzenduta daude. Kalitate handiko ikuskizunak ikusteko aukera ematen diegu, kultura gozatzeko ohiturak bultzatuz.

Partaide kopurua: 2017. urtean: 408.

Aurrekontua: 12.000 euro.

➤ **Gabonetako Haur Jaia:**

Haur pasaitar guztiei zuzendua dago, data berezi hauetan oporrak baitituzte eta aisia eta jolas-jarduera gehiago egiteko aukera. Festaren diseinu eta antolaketan, Gazteria Departamentuarekin batera, Pasaiaiko barruti guztietako aisialdi taldeek hartzen dute parte. Helburu horrezaz gain, Udalarekin elkarlanerako eta beraien arteko harremanak sortzeko oso aukera ona da.

Partaide kopurua: 2017. urtean: 450-500 haur.

Aurrekontua: 27.000 euro.

➤ **Gazteriako jardueretarako diru-laguntzak:**

Partida honek berebiziko garrantzia dauka aisialdi eta gazte taldeen lana garatzeko. Gazte Planaren ondorioz, aurrekontua handitzeko ahalegina egin zen, eta eskatu zen begiraleen lana baloratzeko eta aurrekontuan gastu hori ere jasotzeko.

Aurrekontua: 33.627 euro.

➤ **Gazte kanpaldietarako diru-laguntzak:**

Aisialdi talde batzuek urtean zehar, eta bereziki udan, kanpaldi eta udaleku itxiak antolatzen dituzte. Gastu handia denez, diru-laguntza ematen diegu.

Aurrekontua: 11.209 euro.

➤ **Arrokaundieta gazte aterpetxea:**

Aterpea Jaizkibel mendian dago kokatuta. Bere inguruak aukera ezin hobeak eskaintzen ditu naturaz gozatu ahal izateko. Piraten munduan girotuta dagoen aterpe honek 48 ohe, 2 logela txiki bikoitz, sukaldea, jangela, egongela, berogailua, komunak eta dutxak ditu solairu guztietan. Horretaz gain, ludoteka, berdeguneak, aparkalekua, liburutegia, telebista, bideoa eta DVDa ere baditu.

Aterpeak 3 aukera ematen ditu: librea (elkarteak), ostatua (otordu guztiak) eta programak (piraten etxea eta piraten abenturak).

Iaz birgaitze-obra handiak egin ziren aterpean, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, eta instalazioa modernizatzeko. Hori dela eta, 3 hilabetez itxita egon da.

Piraten etxea:

Euskal kortsarioak eta piratak oinarri, euskara eta ingurumena lantzeko egitasmo ludiko didaktikoa da. Haurra fantasia eta jolasaren munduan murgilduz, helburu hezitzaileak lortzeko egonaldia da.

Arrokaundietako piraten eskutik, itsas munduaren ezagutza lantzen da: abesti piratak; loro jolasa; altxorraren bila; bira txalupan; piraten ludoteka; Lord John Gotorleku historikoa; ontziolara bisita, garai bateko ontzigitza eta itsasoko tresnak ezagutzeko; pirataz mozarrotu...

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua dago.

2017. ikasturtean 1.162 pertsona desberdin egon ziren, zenbat egun egon ziren kontuan hartu gabe (1, 2, 3, 4 edo 5 egun).

Piraten abenturak:

- Piraten udalekuak, 6-9 urte bitartekoentzat.
- Kortsarioen kanpaldiak, 9-12 urte bitartekoentzat.
- Kostaldeko udalekuak, 12-14 urte bitartekoentzat.
- Udalekuak Kantaurin, 14-16 urte bitartekoentzat.

Uztailean eta abuztuan egiten dira.

2017ko udaleku piratetan 263 pertsona desberdin egon ziren.

Beste udal sail batzuekin batera garatzen ditugun egitarauak:

➤ **Aisialdi taldeetako begiraleentzako prestakuntza ikastaroa:**

Duela urte batzuk Pasaiako Udalak abian jarri zuen Gazte Planaren lan-ildoetan aisialdi elkarten sustapena oso garrantzitsutzat jo zen: alde batetik, udalerrian haur eta nerabeekin baliabide estrategikoa direlako eta, bestetik, elkartegintzan orokorrean gertatzen ari den bezala, beren etorkizuna ez delako oso baikorra, boluntario belaunaldi berri baten falta nahiko orokortua dagoelako.

Hori dela eta, beste lan-ardatz batzuen artean, begiraleen prestakuntza oso lagungarri gertatzen ari zaie, dituzten erronkei aurre egiteko. Azken urteotan Euskara Sailarekin batera 2 urtez behin titulu ofiziala ateratzeko begirale-ikastaroa antolatzen dugu euskaraz.

Partaide kopurua: 18 gazte.

Aurrekontua: Gazteriak 1/2: 5.000 euro, gehi 1.500 euroko bekak.

➤ **“Goxatu” sexu eta generoari buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua:**

Gazteria Sailak eta Berdintasun Arloak antolatutako zerbitzuaren helburua da pasaitar nerabe eta gazteek sexuaren arloan informazio gehiago eta hobea izatea. Ekimen honen bidez, prebentzioa landu, eta indarkeria matxistari ere aurre egin nahi zaio, azkenaldian era kezkarria ugaltzen ari delako, baita gaztetxoaren artean ere.

Familien eta ikastetxeen bidez informazio eta prestakuntza ugari jasotzen duten arren, nerabe eta gazte batzuek ez dute haien adinerako informazio eta prestakuntza egokia, Interneten bilatzen dute, eta haien lagunen bidez ere bai, baina batzuetan ez dute aurkitzen, edo ez dute informazio egokia aurkitzen.

Batzuetan zalantzak edo arazoak izaten dituzte, edo informazioa edo orientazioa behar izaten dute, eta ez dakite nora joan, haien intimitatea eta pribatutasuna gorde nahi dutelako. Hain zuzen ere, behar horri erantzun nahi dio zerbitzu honek. Horretarako, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzen dira.

Zerbitzua bi eratarikudeatzen da: aurrez aurre, gaztelekuetan; eta internet bidez, edozein kontsulta egin liteke Instagrameko “Lahia-Nahia” kontuan, edo sexuaholkularitza@pasaia.net helbidean

Aurrekontua: Gazteriak 1/2: 8.000 euro.

➤ **Antzerki Eskola:**

Euskara eta Kultura eta Hezkuntza sailekin batera garatzen dugu egitarau hau, Badia Antzerki Eskolaren bitartez.

Aurrekontua: Gazteria 1/3: 15.050 euro.

➤ **GAZTEMATIKA:**

Gipuzkoako gazteriko sistema da: Pasaia Udaleko Gazteria Departamentuak, Gipuzkoako Aldundiak eta Haurtzaro eta Gazteria Departamentua garatua duten udalerririk guztiek osatzen dugu. Sistema honen bitartez, haur eta gazte politikak komunetan jarri, adostu eta parametro bertsuetan garatzen ditugu.

Foro iraunkorrean, prestakuntzan eta zenbait lantaldeetan hartzen dugu parte, bereziki “Haur eta nerabeen parte hartzea sustatu” lantaldean.

Gazteria Departamentuaren pean dauden hainbat zerbitzuetako hezitzaileek ere hartzen dute parte, bai prestakuntzan eta bai lantaldeetan.

KIROL SAILA

➤ **ESKOLA KIROLA**

HELBURUA: LHko ikasleen artean kirol hastapena lantzea.

EZAUGARRIAK: programak 4 urte irauten ditu. LH3-LH6. Urte horietan hainbat kirol modalitate praktikatzen dira, gehienek jarraipena dute eskualde mailan. Taldeak adinaren eta sexuaren arabera antolatzen dira.

Eskolek kontratatzen dituen begiraleek gidatzen dituzte saioak. Eskualde mailan jorratzen den programa da, eta astero bi saio eta jardunaldi bat programatzen da.

ANTOLATZAILEAK: 3 eragile: GFA, Udala eta ikastetxeak.

AURREKONTUA: 32.000 euro.

PARTE-HARTZAILEAK: 289 haur.

➤ **UDA KIROL KANPAINA**

HELBURUA: uda garaian haur eta gazteen oporraldietan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukerak zabaltzea, bereziki, natuarekin lotura dutenak.

EZAUGARRIAK: egitasmo honen baitan 25 ikastaro baino gehiago antolatzen dira, adin-tarte ezberdinei zuzenduta, nork bere gustuko jarduera aukera dezan. Astebeteko edo hamabost eguneko txandak izaten dira, herriko kirol elkarten lankidetzarekin edo kirolguneetatik eskaintzen dira.

ANTOLATZAILEAK: Udala, herriko hainbat eragileekin lankidetzan (diruz laguntzen da, kuotak merkatzearen).

AURREKONTUA: 5500 euro.

PARTE-HARTZAILEAK: 350 haur.

➤ **BEGIRALEEN PRESTAKUNTZA**

HELBURUA: haurrekin aritzen diren erreferenteei prestakuntza egokia eskaintzea, bai alor teknikoan hobetzeko, eta bai zeharka beste gai batzuk lantzeko: berdintasuna, tratu ona, hizkuntza...

EZAUGARRIAK: urtean zehar antolatzen da hainbat jarduera/prestakuntza-saio. Moduluak 4 edo 8 ordukoak izaten dira.

ANTOLATZAILEA: Udala.

AURREKONTUA: prestakuntzaren arabera. Kirol Saitetik 1000 euro.

PARTE-HARTZAILEAK: 28.

➤ **KIROL IKASTAROAK KIROLGUNEETAN**

HELBURUA: haur eta gazteei eskaintza erakargarria egitea, ikasturtean jarduera fisikoa eta kirola praktikatzeko.

EZAUGARRIAK: modalitate ezberdinetako 9 ikastaro eskaini dira.

ANTOLATZAILEA: Udalak.

AURREKONTUA: hau zehaztea ezinezkoa da.

PARTE-HARTZAILEAK: 95 haur.

➤ **JARDUERA FISIKOA ETA KIROL AHOLKULARITZA ZERBITZUA (ABIAN JARRIKO DA)**

Zerbitzu hau abian dago, baina haur eta gazteentzako programatu diren ekintzak oraindik ez dira martxan jarri.

HELBURUAK: haur sedentarioak identifikatzea; Lhtik DBHra pasatzen diren unean

informazioa emateko hitzaldiak antolatzea, herriko zein eskualdeko kirol eskaintza federatua aurkezteko; patologia baten aurrean, aholkularitza eta gidaritza eskaintzea.

ANTOLATZAILEA: Udala.

AURREKONTUA: 8500 euro.

PARTE-HARTZAILEAK: oraingoz ez dugu.

➤ **KIROL DIRU-LAGUNTZAK**

HELBURUA: herriko kirol elkarten jarduera diruz laguntzea.

EZAUGARRIAK: urtero diru-laguntza lerro irekia zabaltzen da herriko kirol elkarten jarduerak suspertzeko.

ANTOLATZAILEA: Udala.

AURREKONTUA: 42.000 euro.

PARTE-HARTZAILEAK: 28 elkarte. Adingabeko kirolariak: 600etik gora.

GIZARTE EKINTZA SAILA

Pasaiako Udaleko Gizarte Ekintza Sailak, adingabekoen arrisku- edo babesgabetasun egoerei erantzuteko, arrisku-egoeran eta/edo babesgabezia-egoeran dauden udalerriko haurrak eta nera-beak artatzeko berariazko arloa du.

Arreta arlo horrek honako egitasmo hauek ditu:

➤ **HAURREN ZAURGARRITASUN ETA BABES GABEZIA EGOERAK PREBENITZEKO ETA DETEKTATZEKO, ETA ESKU-HARTZE GOIZTIARRERAKO PROGRAMA**

Esku-hartze goiztiarrerako programaren helburua hau da: Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Saileko jardunbideak hobetzea, erraztea eta dinamizatzea, arrisku egoeran eta/edo babesgabezia egoeran dauden haurrak eta nerabeak artatzeko.

Helburu horiek lortzeko, Programak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

1) Ikerketa-zerbitzua:

Helburuak:

- ✓ Babesgabezia egoera badagoela egiaztatzea.
- ✓ Larritasunaren balorazioa egitea; berriro gertatu ote daitekeen aztertzea, eta haurraren edo nerabearen osasuna edo bizia arriskuan ote dagoen aztertzea.
- ✓ Larrialdiko babes-neurriak hartu behar ote diren aztertzea, eta beharrik izanez gero, hartzea.

2) Ebaluaziorako eta baloraziorako zerbitzua

Helburua:

- ✓ Zehaztea tratu txarraren etiologia zein den, egoerak adingabekoari zer eragin sortzen dion eta tratamendurik egokiena zein den.

Programa honetan (ikerketa zerbitzua, eta ebaluazio eta balorazio zerbitzua) artatutako adingabekoen kopurua 2017an guztira honako hau izan da: 52.

3) Aholkularitza eta gainbegiratze zerbitzua

Lan-prozesu osoan gizarte-langileei zuzendua, adingabekoen eta familien esku-hartzeak hobetze aldera.

4) Haurren babeserako gaiari buruzko prestakuntza zerbitzua.

Aurten haurren babes sistemari buruzko eta adingabekoen esku-hartzean jokabide egokiei buruzko hainbat prestakuntza saio egin dira. Lan saio eta prestakuntza horietan osasun arloko, ikastetxeetako, udal-zerbitzuetako eta beste hainbat ataletako profesionalek parte hartu dute.

Halaber, abiarazi da **“Pasaiaiko Udaleko profesionalentzako barruko jardueraprotokoloa, haurrak arriskuan edo babesgabezia egoeran daudelako susmoa dagoenerako”**.

- **“GAITZEN”, BIGARREN MAILAKO PREBENTZIO PROGRAMA, BABESGABETASUN ARINEKO ARRISKU ETA AHULEZIA EGOERAK DIRENERAKO.**

Programa honen bitartez, egoera zaurgarrian eta/edo tratu txar arinerako arriskuan dauden adingabekoen familien zaintza optimizatu nahi da. Prebentziosko izaera du, izan ere helburu nagusia da tratu txarren egoerak ez gehiagotzea, eta ahal izanez gero, desagertzea.

Programaren arlorik garrantzizkoena taldekakoa izatea da. Taldearen dinamizazio-lanak bi terapeuta espezializatuk egiten dituzte, familietan eta taldeetan esku hartuz.

Programaren helburuak

- Babesgabeziako edo arrisku arineko egoerak saihestea, arrisku ertain, larri edo babesgabetasun egoerak izan ez daitezen.
- Gurasoen eskura jarraibide hezitzaileak, eta tresnak eta baliabideak jartzea, emaitzetarako aukera gehiago izate eta optimizatze aldera, eta baita gurasoen ahalmenak eta gurasoen rola sendotze aldera ere.
- Sozializatorako, elkarreraginerako eta komunitatean gizarteratzeko baliagarriak diren taldeko eskarmentuak garatzea, lehendik dituzten gizarte-trebeziak hobetzeko eta gizarte-sare formal eta informalak zabal daitezen.
- Adingabekoak euren menpe dituzten familia parte-hartzaileak 2017an guztira 22 izan dira eta adingabekoen kopurua guztira 36 izan dira.

Programaren kostu ekonomikoa 16.600€-koa izan da.

➤ **GIZARTE ETA HEZKUNTZA, ETA PSIKOLOGIA ETA GIZARTE ARLOETAKO FAMILIAREN ESKU-HARTZE PROGRAMA, BABESGABETASUN EGOERA ARINEKO EDO ERTAINEKO ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEKOEN FAMILIENTZAT**

Adingabekoak babesgabetasuneko arrisku ertaineko egoeran dauden familientzako udal-programa, bai eta babesgabetasun arrisku arineko egoeran daudenentzat, bereziki esku-hartzerik gabe egoteagatik edota familiaren ezaugarriengatik banan-banako esku-hartzea behar duelako ustea dagoenean.

Haurraren edo nerabearen babeserako proposamenaren ondoren jarraitu beharreko prozesua da, izan ere epe motz eta luzerako garatu beharreko konponbideak edo estrategiak definituko dira, haurrarentzat arrisku-iturri diren arazoei irtenbidea emateko.

2017an gizarte eta hezkuntza, eta psikologia eta gizarte arloetako programaren onuradun guztira 69 adingabeko izan dira.

Programaren kostu ekonomikoa 2017an 129.544€-koa izan da.

➤ **ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO PROGRAMA GAZTE ETA NERABEENTZAT**

Gizarte Ekintza Sailean prebentzio komunitariorako programak lantzen dira, gazte eta nerabeek drogen gehiegizko kontsumoari aurrea har diezaieten.

2017an jarraian aipatzen diren berariazko programak landu dira:

1.- Alkohol eta tabakoari buruzko prebentziorako eta sentsibilizaziorako oinarritzko ikastaroa.

DBHko adingabeko eta nerabeentzako ikastaroa Pasaia Lezo Lizeoan, Agipad Elkarteak emana.

Helburuak.

.- Kontsumoen arriskuei buruzko informazioa ematea eta kontzientziazio-lana egitea.

.- Alkoholaren eta tabakoaren kontsumoari ekiteko adina gutxitzea.

.- Tabako eta alkoholaren kontsumoan arrisku-egoerak prebenitzea adingabeko eta nerabeen artean.

Guztira, Pasaia Lezo Lizeoko DBHko 60 ikaslek hartu dute parte.

Programaren kostua: 2.500€

2.- Plazeren eta arriskuen kudeaketari buruzko tailerra.

Tailerrak lanerako eta sentsibilizaziorako saioak izan dira, Pasaiaiko Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroko ikasleei zuzendua izan da eta Ai laket Elkarteak eman ditu.

Helburuak:

- ✓ Substantzia psikoaktiboak kontsumitzeko erabakia hartu aurretik gaitasun kritikoa bultzatzea.
- ✓ Nerabeen artean babeserako faktoreak bultzatzea.
- ✓ Drogen kontsumoan erabaki arduratsua hartzeko gaitasuna lantzea.

Guztira, Pasaiaiko Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroan 40 ikaslek hartu dute parte.

Programaren kostua 2017an: 924€.

3.- Jaietan drogen kontsumoaren arriskua gutxitzeko Testing programa.

Helburuak:

- ✓ Gazte eta nerabeen artean substantzien gehiegizko kontsumoa prebenitzea, benetako informazio objektiboa eman eta gero.
- ✓ Kontsumoen arriskuez kontzientziatzea eta hausnarketarako bideak lantzea, kontsumoak zergatik gertatzen diren lantzeko.
- ✓ Arriskuen murrizketetarako kontzeptuak zabaltzea.

Programa 2017an landu zen Antxoko eta Trintxerpeko jaietan. Informaziorako standetan guztira, 290 lagun artatu ziren, eta horietatik %46 18 urtetik beherakoak ziren.

Programaren kostu ekonomikoa 2017an 5.000€-koa izan da.

➤ KALE-HEZIKETAREN PROGRAMA

Arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoekin esku hartzeko kale-heziketaren programa sailak arlo honetarako duen baliabiderik nagusia da.

Norberaren inguruabarrek eraginda edo inguruak eraginda, arrisku egoeran dauden 7 eta 17 urte bitarteko adingabekoentzako programa da.

Programaren funtzio nagusiak hauek dira:

- ✓ Alde batetik, haurren arrisku eta babesgabeziaren detekzioa, eta ondorengo jakinarazpena eskumena duen administrazioan.

- ✓ Beste alde batetik, arrisku-egoeran dauden adingabekoen esku-hartzea alderdi komunitariotik.

Programaren bitartez, Pasaiako lau barrutietan hainbat ekintza eta jarduera garatzen dira. Hona hemen horiek koadro batean jasota:

Proiektua	Chicos	Chicas	P.E.I.	P.E.	Proyecto	Participantes	total
Boxeoa	13	3	12	4	0	0	16
T.individual	17	22	20	14	5	0	39
T.motivac. Tri	26	21	16	16	15	0	47
Igerilekua	25	20	22	18	4	1	45
Jang Bide lizeo	35	14	3	5	4	2	49
Futbola Antxo	115	5	12	12	31	65	120
Osoa	0	13	8	2	3	0	13
Antxo handi	4	7	7	0	2	2	11
T.medi. Antxo	1	11	3	5	0	4	12
T.sex.Antxo	0	10	2	5	0	3	10
T.sex. Trintx	9	5	7	6	0	1	14
Moib. Tail. Doni	3	4	1	6	0	0	7
Perkusioa	7	5	5	4	2	1	12
Motib. Tail. Antxo	11	11	9	7	4	2	22
Pelu txikis	5	21	12	11	1	2	26
Pelu hand	9	17	10	6	3	7	26
Futbola Trintxerpe	48	2	7	7	13	23	50
Harrera on	7	2	4	5	0	0	9
Con.Urkiola acedo y mendi	40	31	35	31	3	2	71

Irteerak	44	37	34	22	10	15	81
Udalekuak	30	35	25	23	16	1	65

Banan banakako hezkuntza proiektua: Hezkuntza arloko gradu altua, astean bitan eta hezkuntza alorreko lotura sakona. Lansaio osoko hezitzaile bakoitzeko 10 gehienez.

Hezkuntza proiektua: Hezkuntza arloko gradu ertaina, astean behin eta hezkuntza alorreko lotura sakona. Lansaio osoko hezitzaile bakoitzeko 20 gehienez.

Proiektuak: Arrisku adierazleak agertzen dituzte eta jarraipena egiten zaie. Kasu batzuetan bada atxikimendurik eta beste batzuetan ez.

Parte-hartzaileak: ez da arrisku-adierazlerik sumatzen eta hezkuntza-lana arrisku adierazleak detektatzean datza, eta harremanean sakontzean, ikuspuntua prebentziozkoa izanda.

Programaren kostu ekonomikoa: 181.000 €.

BERDINTASUN ARLOA

➤ **Nerabe eta gazteei zuzendutako sexu eta genero aholkularitza zerbitzua:** Pasaiaiko nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzua da. Doakoa da eta konfidentzialtasuna ziurtatzen da. Bakarka edo taldean joan daiteke. Gaztelekuetan artatzen du Lahaia nahia elkarteak.

- ✓ Antolatzaileak: Pasaiaiko Udaleko Berdintasun Arloa eta Gazteria Saila.
- ✓ 2017 eta 2018ko urtarriletik ekainera eta irailetik abendura, 3 barruetietan: San Pedro eta Trintxerpe, Donibane eta Antxo, barruti bakoitzean bi astetik behin.
- ✓ Egutegi osoa: <http://www.pasaia.eus/documents/90521/3027844/Goxatu-egutegia.jpg/5e44a2d0-ab2d-143f-9062-fda3665b6748?t=1518440113167>
- ✓ Aurrekontua: 8600 € urtean.

➤ **Hezkidetzeta eta sexu hezkuntza Pasaiaiko ikastetxeetan:**

Lizeoa, Karmengo Ama, Pasaiaiko Lanbide Heziketa eta Anuntziata ikastetxeetan jorratzen den sexu hezkuntza: aniztasunaren ulermena, gure eta besteen desiren kudeaketak, berdintasuna eta prebentzioa lantzen dira. LH6 eta DBHko ikasleekin egiten da lanketa, baita Lanbide Heziketako ikasleekin ere.

- ✓ Antolatzaileak: Pasaiaiko Udaleko Berdintasun Arloa.
- ✓ Datak: 2017 eta 2018ko urtarriletik martxora eta urritik abendura.
- ✓ Parte hartu duten haur eta gazteen kopurua: urtero 200 ikaslerengana iristen gara programa honekin.
- ✓ Egutegi osoa: <http://www.pasaia.eus/documents/90521/3027844/Goxatu-egutegia.jpg/5e44a2d0-ab2d-143f-9062-fda3665b6748?t=1518440113167>

- ✓ Aurrekontua: 8600 € urtean.

➤ **Kale hezitzaileen nerabe taldeekin interesa duten gaiak lantzeko egindako sexu hezkuntza saioak:** kale hezitzaileekin egoten diren gazte taldeek identifikatutako gaiei erantzunez antolatutako berariazko prestakuntza-saioak: hilekoa, maitasun erromantikoa, erlazio erotikoak, neskak eta mutilak eta elkar ulertzea eta gaizki-ulertuak, maskulinitatea.

- ✓ Antolatzaileak: Pasaiaiko Udaleko Berdintasun Arloa.
- ✓ Datak: 2018 otsailak 20-2018ko martxoak 23
- ✓ Parte hartu duten gazteen kopurua: 18.
- ✓ Aurrekontua: 2000€

➤ **Beldur Barik:** Emakundetik eta aldundietatik bultzatutako programa, indarkeria matxistaren prebentziorako. 2016. urtean taldea Beldur Barik lehiaketan saritu zuten, Furia emakume raperoarekin egindako prozesu baten ondoren egindako bideoarekin.

- ✓ Antolatzaileak: Pasaiaiko Udaleko Berdintasun Arloa, Beldur Barik Programa, Aldundia, Emakunde eta Eudel.
- ✓ Parte hartu duen gazte kopurua: 15
- ✓ Aurrekontua: 2000 €. Udalak ez du ezer ordaintzen.
- ✓ Datak: 2017ko urriatik abendura bitartean (gala abenduaren 3an izan zen).

➤ **Neska nerabeentzako rap feminista tailerra:** 14-18 urte bitarteko 7 neskekin egin zen ahalduntze feministako Rap tailerra. Lanketa horren ondorioz, Beldur Barik programara aurkeztu, eta egindako bidoarekin 2016. urtearen bukaeran saria irabazi zuen taldeak.

- ✓ Antolatzailea: Pasaiaiko Udaleko Berdintasun Arloa.
- ✓ Parte hartu duen gazte kopurua: 7 neska.
- ✓ Datak: 2016ko urtarrila eta ekaina bitartean.
- ✓ Aurrekontua: 1500 €

MIGRAZIO ETA ANIZTASUN ARLOA

Arlo honetatik, haur eta nerabeei zuzendutako egitasmo eta ekintza gehienak Eskubidean planaren 3. lerro estrategikoaren atalean jaso dira (ikus 15. orrialdea).

Zehazki, Migrazio eta Aniztasun Arlotik 2017an sustatu dira Ongi etorri gazte!

prozesu parte-hartzailea, Harrera On programa eta aniztasunari buruzko prestakuntza.

Horiez gain, Migrazio eta Aniztasun Arlotik beste hainbat ekintza burutu dira herriko adin txikikoei zuzenduta:

PASAIKO ANIZTASUNAREN ASTEA

2014ko, 2015eko, eta 2016ko ekainean Euskal Herriko aniztasunaren eguna ospatu genuen, gure herria askotarikoa dela agertzeko, nahiz eta hori Pasaian ez den berria, izan ere jatorri askotariko jendeak osatzen du herri hau.

- ✓ **ERAKUSKETA:** egitarauaren barruan antolatu zen **Ongi etorri errefuxiatuak!** Izeneko erakusketa egin zen. Anunciata Ikastetxeko 15 ikaslek eta Pasaiko Oinarrizko Lanbide Heziketako 24 ikaslek bisita gidatuak egin zituzten.
- ✓ **ANTZERKIAREN FOROA:** BADIA Eskolako ikasleek Pasaiko aniztasunaren astearren barruan ekainaren 2an Antxoko Kultur Etxean lau antzezlan eskaini zituzten. Ehunen bat lagunek ikusi zuten aktoreen lana. Zuzenean edo zeharka, indarkeria jasandakoen egoerak agertu zituzten. Lehen zatian gai hauek antzeztu ziren: arrazismoa, bullyinga, etab. Bigarren zatian antzezpena gogorragoa izan zen, arriskatua eta barru-barrukoa. Antzezlanak ez zuen inor epel utzi.
- ✓ **MURREN BIDAIA ANTZEZLANA DONIBANEN ETA ANIZTASUNAREN INGURUKO PERKUSIO TAILERRAREN EMANALDIA:** programazioa bi ekimen eder eta atsegingarriekin amaitu genuen. Horrela, ekainaren 9an Donibaneko ludotekan Murrekin egin genuen bidaia. Hogeiren bat hurrek lagundu ziguten bidaia horretan. Arrazismoa, estereotipoak, beldurra eta ezagutzarik eza, horiexek izan ziren ekipajearen pusketa batzuk. Benetan, bidaia horretan pisu handiegia generamala konturatu ginen, eta berriro egin genuen maleta, beste balio batzuk erantsita, errespetua eta adiskidetasunaren indarra kontuan izanda. Larunbatean, hilaren 10ean, bidaiatzen jarraitu genuen Antxon, Pasaia Musikalekoekin eta kale-hezitzaileekin diharduten gazteekin batera; eta ordu hartan, musikaren bitartez, egungo bidaian guztiok elkarrekin gaudela kontura gaitezen, eta jakin dezagun guztion esku dagoela dena bide onetik eramatea. 8 hurrek hartu zuten parte tailerrean eta 20 ikusle egon ziren emanaldian.

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

➤ **HAUR ESKOLAK**

0-3 urte bitarteko hurrei zuzendutako bi haur eskola daude Pasaian: Liliturgia eta Karmengo Amako haur eskola.

Zerbitzu publikoko haur eskolak dira eta horien helburuak honako hauek dira: gizarte-koheretza hobetzea; familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko aukera eskaintzea; eta aukera berdintasunaren alde lan egitea. Pasaian 2 haur eskola daude, herrian kokaleku berezia dutenak, herritarrengandik gertu.

Parte-hartzaile kopurua:

- ✓ Liliturgian 49 haur 0-3 urtekoak.
- ✓ Karmengo Amako haur eskolan: 9 haur 0-1 urtekoak, eta 12 haur 1-2 urtekoak.

➤ **LIBURUTEGIAK**

Lau barrutietan daude liburutegiak. Liburutegiek, euren urteroko programazioan, haur eta nerabeei zuzendutako hainbat ekintza burutzen dituzte. Hona hemen esanguratsuenak:

- ✓ Azaroaren 20a dela-eta, azken urteetan azaroan zenbait ekintza antolatu dugu. Betiere, Sailarteko Mahaiarekin elkarlanean, baita udal zerbitzuen gunearekin eta hezkuntza gunearekin ere.
- ✓ Esanguratsuak iruditzen zaizkigu liburutegietan gurasoei zuzendutako hitzaldi eta tailerrak. Besteak beste, txikienezako filosofia solasaldiak eta kontu kontalariak ere antolatu dituzte liburuzainek.
- ✓ Marrazki lehiaketa: liburutegietan antolatutako marrazki lehiaketa oso arrakastatsua da, pasa den edizioan 1307 hurrek parte hartu zuten.
- ✓ Kontakatiliketan proiektua: hurrek haur txikiei ipuinak kontatzeko egitasmoan 120 bat hurrek parte hartu dute.
- ✓ Eskolekin bisita gidatuak liburutegietara: 50 parte-hartzaile inguru.
- ✓ Hitzaldiak idazleekin nerabeei zuzendutakoak: 50 parte-hartzaile inguru.
- ✓ Donibaneko liburutegi berria diseinatzeko prozesuan haurren parte-hartzea txertatu dute, bai diseinu aldetik eta baita edukiei dagokionez ere.

➤ **ARTE ESZENIKOAK**

Kultura eta Hezkuntza Saitetik urte osoan hainbat ikuskizun antolatzen da:

- ✓ Ikastetxeekin elkarlanean zenbait saio antolatu izan dugu azken urteetan.
- ✓ Nerabeei zuzendutako parte-hartze antzerkia: 60 nerabek parte hartu zuten.
- ✓ Hurrei zuzendutako antzerki saioak: 200 hurrek hartu zuten parte.
- ✓ Familientzako kale ikuskizunak azaroaren 20ko sentsibilizazio jardueren baitan.

➤ **JAI BATZORDEAK**

Lau barrutietan hurrei zuzendutako jarduerak antolatzen dituzte jai batzordeetako partaideek alkateordeekin batera. Eskubidean planaren sentsibilizazio kanpainarekin bat egiten dute eragileek, haurren eskubideen aldeko zenbait jarduera aurrera eramateko.

Besteak beste, haur eta nerabeen eskubideen aldeko lasterketak, apar festa eta pilota txapelketa antolatu ziren 2017an.

BESTE BATZUK

- ✓ Bisita gidatuak Donibaneko portzelanaren industriari buruzkoak.
- ✓ Erakusketak: ikastetxeek egindako bisita gidatuak: Ricardo Ugarteren erakusketa Cirizan 2017. 40 haurren parte-hartzea.

➤ **DIRU-LAGUNTZAK**

1) Hezkuntzari dagozkionak:

- ✓ Ikastetxeetako eskola orduz kanpoko eskaintza.
- ✓ Gurasoen elkarteei emandakoak.

2) Kulturari dagozkionak:

- ✓ Haur eta nerabeei zuzendutako euskal dantza taldeei esleitutako diru-laguntzak (hiru talde daude)

➤ **MUSIKA ESKOLA**

➤ **HITZARMENAK**

- ✓ San Pedroko familiekin egindako hitzarmena, Udal aretoan harrekin jarduerak egiteko.
- ✓ Haur eta nerabeei zuzendutako antzerki eskola aurrera eramateko hitzarmena (Gazteria eta Euskara sailekin elkarlanean).

Antzerki eskolaren helburua da arte eszenikoen zaletasuna euskaraz sustatzea, betiere beste hainbat helburu lantzearekin batera: sormena lantzea, ondokoari tratu egokia ematea, aniztasunaren aberastasuna bizitzeko gune bat eskaintzea, aisia euskaraz lantzea, taldeko lana bultzatzea...

PASAIKO HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZERAKO ORGANO IRAUNKORRA

Haur eta nerabeen partaidetza lehentasunezko erronka da Pasaian. Badira urteak gaia lantzen hasi ginela. Udaleko sailarteko mahaitik haur eta nerabeen parte-hartzerako lantaldea sortu zen. Bertan parte hartzen dute hiru udal teknikaririk eta planaren koordinatzaileak.

Azken bi urteetan, partaidetzazko prozesuak sustatu dira planetik. Horrez gain, eragile bakoitza bere "etxean" ere parte-hartzearen oinarria lantzen ari da. Esaterako, Boveda aisialdi elkarteak udaleku itxien antolaketan nerabeen parte-hartze aktiboa lantzen du, Pasaiko Udalak antolatutako udaleku irekiak partaidetzazkoak izan ziren 2017an, Pasaia Lezo Lizeoa Pasaiko irrizaleen eragile aktiboa da, liburutegietan partaidetzazko prozesuak lantzen dituzte...

Pixkanaka-pixkanaka ari gara haur eta nerabeen partaidetza zeharka lantzen Eskubidean planean biltzen garen eragileen artean. Bide horretan, hainbat ekintza burutu dugu:

- ✓ Gure buruak prestatzea: 2015 eta 2016ko urrian, haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko jardunaldiak egin genituen. Trebakuntza teorikoa jasotzeaz gain, Pasaian bertan zein Euskal Herrian zehar dauden esperientziak ezagutzeko tarte hartu genuen. Jardunaldi bakoitzean Eskubidean planak biltzen gaituen 45 hezitzaile, irakasle, teknikari eta politikari izan ginen.
- ✓ Oarsoirriak egitasmoaren barruan, Pasaiko irrizaleak egitasmoan aktiboki parte-hartu du Pasaiko Udalak.

- ✓ Haur eta nerabeak protagonista izan diren partaidetzazko prozesuak egin ditugu.
- ✓ 2017ko urrian Pasaiaiko haur eta nerabeen partaidetza-ikerketa soziologikoa martxan jarri genuen.

Haur eta nerabeen partaidetzarako gune edo organo iraunkorrak sortzea, Eskubidean planeko eragileek sentitutako behar batetik abiatu zen eta urteetako ibilbide baten emaitza izan da.

Unicefen Haurren Lagun diren Hirien (CAI) zigilua lortzeko Pasaiaiko Udaletik egin dugun eskaerak eta herrian haur eta nerabeen partaidetzaren esparruan egin dugun ibilbidea egituratzeko nahiak, 2017. urtean haur eta nerabeen partaidetzarako gune iraunkorrak sortzea eta udalbatzarrak dekretu bidez eta aho batez onartzea ekarri du.

Pasaiaiko haur eta nerabeen organo edo gune iraunkorrak

Organoak formalki 2017ko azaroan onartu baziren ere, progresiboki joan dira martxa hartzen 2017. urte osoan.

➤ **Organoen sorrera**

Haur eta nerabeen parte-hartzerako organoen sorrera orain dela lau urte hasi ginen antolatzen. Organoak sortu baino lehen, hezitzaile, teknikari eta politikariek argi genuen gure buruak prestatzea ezinbestekoa genuela. Horretarako, zenbait prestakuntza saio antolatu ziren, eta kanpoko hainbat esperientzia ezagutu genituen.

Organoen sorrera bi parte-hartze prozesu edo gai zehatzen baitan hasi ginen lantzen. Prozesuak 2016an egin ziren. Gaiak sailarteko mahaiak adostu zituen, udal zerbitzuen gunearekin eta hezkuntza gunearekin batera.

Gai bakoitza adin-tarte jakin batekin landu zen. Beraz, haur eta nerabeen gune edo organo horien abiapuntua bi prozesurekin hasi genuen. Bidea eginez hasi ginen guztiok, haur eta heldu, elkarrekin trebatzen:

- Hurrekin egindako parte-hartze prozesua: PLANAREN LOGOA SORTZEA.
- Nerabeekin egindako parte-hartze prozesua: PASAIAKO HARRERA PROTOKOLOA eta ondorengo ONGI-ETORRI GAZTE! prozesua.

Haurren "organoa" beraz, gai zehatz baten bueltan hasi zen lanean: Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planaren logoa sortzea. Gai hori baliatu dugu, haurren organoa sortzen joateko, eta haurren parte-hartzearen bidea sendotzen joateko. Gaiak aukera emango zigun plana haur eta gurasoen artean ezagutzera emateko eta hurrek plana eurenganatzeko.

Hurrekin lehen saio edo bilerak ikastetxe barruan eta eskola orduetan egin ziren. Ikastetxeetako 5. eta 6. mailako ikasleekin abiatzea proposatu zen hezkuntza gunean. Ondoren, ikastetxe bakoitzeko ordezkari bat hautatu zen (ikasleek beraiek egin zuten hautaketa, euren burua eskaini zutenen artean) eta ikastetxeetako ordezkari horiekin osatu zen organoa edo ordezkari taldea.

Ordezkari talde horretan aniztasuna bermatu zen (genero, jatorri, barruti eta

ikastetxeen ordezkariak aldetik).

Prozesu osoan 10-12 urte bitarteko 200 hurrek hartu zuten parte. Prozesu horretatik sortutako haurren ordezkarien gunea 24 hurrek osatu zuten.

Haurren organoa alkatearekin bildu zen egindako lanaren berri emateko.

Nerabeen "organoari" dagokionez, udalean sortzeaz zegoen protokolo bat hartu genuen abiapuntu. Gaiak aukera eman digu nerabeen ikuspegia udalaren antolaketan txertatzeko, eta haien ekarpenak, helduenen maila berean, instituzionalki onartzeko.

Ikastetxeetako 9 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek parte-hartu zuten. Ikastetxe bakoitzak, ikasleekin batera, eta aniztasuna bermatuko zelakoan, bere ordezkariak hautatu zituen. Lehen saioak eskola orduetan egin ziren, baina ikastetxetik kanpo (udal areto batean). Guztira 45 gaztek parte hartu zuten prozesuan, eta prozesu horretatik 10 neska-mutilez osatutako ordezkari taldea antolatu zen.

Nerabeen ordezkarien guneak proposatuta, Ongi etorri gazte! egitasmoa jarri zen martxan. Egitasmo horren bidez, nerabeen gunea gaztetxo gehiagorengana iritsi zen, eta partaide-kopurua handitu zen.

Udal gobernuko ordezkariak nerabeen gunearen saio batzuetan izan dira, gunearen dinamika eta nerabeen lana gertutik ezagutzeko.

➤ **Adin txikikoen parte-hartzea organoetan**

Bi prozesuak bideratzeko, herriko ikastetxeak eta udal zerbitzuak aliatu garrantzitsuak izan dira, eta hala dira dinamika guzti honetan oraindik ere.

Haur eta nerabe gehienek ikastetxeen bidez egindako harremanari esker parte hartzen dute organoan. Halaber, Pasaiaiko nerabe asko eta asko herritik kanpoko ikastetxeetara joaten dira ikastera. Ondorioz, hainbat nerabe (12-17) herriko elkarte eta udal zerbitzuen bidez animatu dira organoan parte hartzera. Udal zerbitzu horien artean aipamen berezia egin nahi diegu antzerki eskolari, Kuadrillategiri, kale hezitzaileei eta gaztelekuei.

Organo irekiak dira

Pasaiaiko haur eta nerabeen organoetan parte hartzeko aukera irekita dago beti. Gune malguak dira. Are gehiago, haur eta nerabeen organo edo guneak iraunkortu bitartean, ahalik eta haur eta nerabe gehienengana iristeko ahaleginetan gabilta.

Organoak berak dira iraunkorrak. Hots, haur eta nerabeek organoetan lantzen diren eta etorkizunean landuko diren gaiekiko duten interesaren arabera parte hartuko dute. Izan ere, esperientziak erakutsi digu hurrek motibatzen dien gaietan parte-hartzen dutela.

Beraz, guneetan parte hartzen duten neska-mutilen izen-abizenak eta kopuruak aldakorrak dira: Pasaiaiko haur eta nerabe guztiek dute bertan parte hartzeko aukera nahi dutenean.

Hala ere, ordezkarien figurak bere lekua dauka. Horien ardura izan da momentu batzuetan haur eta nerabeen ahotsa ordezkatzeko eta antolaketa lanak gauzatzea, helduak bidelagun dituztela.

Abiapuntua hori izanik, orain arteko funtzionamenduan bi bide jorratu ditugu: saio irekiak (interesa duten adin txikiko guztiek hartzen dute parte, gehienetan ikastetxe barruan egiten diren saioetan) eta saio horietatik aukeratzen diren

ordezkariak eta lan zehatzak. Ordezkarri horiek funtzio eta zeregin gehiago izaten dituzte. Ordezkarri horiek dira gainerako haur eta nerabeekin zubi-lanak egiten dituztenak. Ordezkarriak taldeak aukeratzen ditu, zeregin horretarako prest daudenen artean.

Parte-hartze datuak

Haurren organoa: logoa egiteko prozesutik sortutako ordezkarien gunea 24 haurrek osatu zuten.

	Neskak	Mutilak	Guztira
Lizeoa	5	3	8
Karmengo Ama	4	4	8
Anunciata	3	5	8
	12	12	24

Nerabeen organoa: harrera protokoloan parte hartu zuten ordezkarien gunea 10 nerabekin osatu zen hasera batean.

	Neskak	Mutilak	Guztira
10-14	2	2	4
15-17	3	3	6
	5	5	10

Nerabeen guneak hiru ekintza proposatu eta antolatu zituen (etorri berriei harrera egiteko helburua dutenak). Ekintza horien antolaketan eta ekintzan parte-hartze handia izan zen:

- Futbito txapelketa: 82 nerabek parte hartu zuten, antolaketan edo ekintzan bertan.
- Antxo tour festa: 56 nerabek parte hartu zuten.
- Trintxerpe-San Pedroko bideoa egitea: 3 nerabek parte hartu zuten.

	Neskak	Mutilak	Guztira
Ikastetxeetako saioetan	35	30	65
Barrutietako saioetan	32	28	60
Jardueretako antolatzaileak	25	13	38

Jardueretako partaideak	59	43	102
	151	114	265

Laburbilduz: organoen egitura egonkorra sortzeko, zenbait parte-hartze prozesu baliatu dugu. Helduok naiz adin-txikikoek geure buruak trebatzen joateko eta bidea egiten hasteko, gai zehatzak jorratu ditugu (gai desberdinak adin tartearen arabera). Zenbait ikastetxetako ikasleez osatutako haurren ordezkari talde batekin zein nerabeen ordezkari talde batekin egin dugu lan. Ordezkari horiek alkatearekin edota zinegotziekin bildu dira, euren lanaren berri emateko, eta prentsaurreko batean ere parte hartu dute.

Orain arteko prozesuaren eta funtzionamenduaren balorazioa positiboa izan da.

2017ko azaroan Udalbatzak aho batez onartu zuen haur eta nerabeen organo iraunkorrak sortzea. Data hori aukeratu zen, azaroaren 20an ospatzen den haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko egunarekin lotura egiteko.

Orain partaidetzazko **ikerketari soziologiko baten** bidez, organo horien izaera, funtzionamendua eta arautegia zehazten dihardugu, haur eta nerabeekin batera; halaber, organoak egonkortu eta haur eta nerabe gehiagorengana iristeko helburuak ditugu. Pasaiaiko haurrak eta nerabeak haien egoeraren diagnostia egiten, datozen urteetarako ekintza plana adosten eta organoaren norabidea zehazten ari dira.

PARTAIDETZAZKO IKERKETA SOZIOLOGIKOA

2017ko urrian Pasaiaiko haur eta nerabeen partaidetzazko ikerketa soziologikoa jarri genuen martxan.

UNICEFeko CAI ziurtagiria eskuratzeko, Udalean haur eta nerabeen eremuan bete beharreko baldintzak modu egokian beteko genituela bermatuko zigun ikerketak.

IKERKETAREN HELBURU OROKORRA

Ikerketaren bidez, Pasaiaiko Udalak abian jarritako *Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planean* sakondu beharrekoak eta aurrera begira landu beharrekoak zehaztu nahi dira.

Haur eta nerabeen parte-hartzearen arloan dagoen hutsunea gainditu, eta haiek benetako protagonista bilakatu nahi dira, planaren erdigunean jarrita. Horretarako, haurren eta nerabeen, eta haiekin lanean ari diren eragileen (Udala, udal zerbitzuak, elkarteak, hezkuntza zentroak...) iritzi, kezka, behar eta proposamenak bildu, eta horiek hobetzeko bideak eta ekintzak adostu nahi dira ikerketa soziologikoan.

HELBURU ZEHATZAK

✓ Ikerketa soziologikoa

Pasaian haurrek eta nerabeek eta haiekin lanean diharduten eragileek haurren eta nerabeen egoera nola ikusten duten, zer behar sumatzen dituzten eta beraien interesak zeintzuk diren bildu nahi dira lehen fasean, diagnostikoan; eta

interesgune horiek lantzeko bideak eta beharrak asetzeko ekintza plana bigarren fasean.

Ikerketa soziologikoa baliatu nahi da, era berean, haurren eta nerabeen parte-hartzea planaren oinarri metodologiko gisa finkatzeko, eta partaidetzarako aukera emango duten parte-hartze foro edo topaguneak iraunkortzeko.

✓ **Prestakuntza**

Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planean sakontzeko, planeko eragile guztion gogoeta eta prestakuntza ezinbestekoak dira. Ikerketa soziologikoaren prozesua baliatu nahi da, batik bat, adingabeen estatus politikoaren inguruko gogoeta egiteko, eta haurren eta nerabeen parte-hartze metodologian prestakuntza praktikoa lantzeko.

✓ **Sentsibilizazioa eta komunikazioa**

Haurrak oraindik ez ditugu eskubideak eta boterea dituzten subjektu politiko gisa onartzen, ez behintzat helduen maila berean. Begirada hori aldarrikatuko duen gogoeta eta sentsibilizazio lana egiteko ere baliatu nahi da ikerketa soziologikoa.

✓ **Sistematizazioa eta adierazleak**

Ikerketa soziologikoaren bitartez, aurrerantzean neurgailu gisa erabiliko ditugun planaren sistematizaziorako adierazleak eta metodologia zehaztuko dira. Planak herrian orokorrean eta arlo zehatzetan zer-nolako inpaktua duen neurtzeko baliatuko dugu ikerketa, aurrera begirako abiapuntua eta bidea finkatuko baitira bertan.

Ikerketa oraindik martxan dago 2018ko apirilean. Eskubidean planeko hezkuntza gunearekin, elkarten gunearekin, udal zerbitzuen gunearekin eta, bereziki, haur eta nerabeen gunearekin etengabeko harremana dugu.

Jada egina daukagu Pasaiaiko adin txikikoen egoeraren diagnostikoa. Bertan haur eta nerabeen ekarpenak izan dira protagonista. Era berean, prestakuntza teorikoa eskaini zaie hezitzaileei.

BARNE- ETA KANPO-KOORDINAZIORAKO TRESNEN AZALPENA

BARNE MAILAKO KOORDINAZIORAKO ORGANOA

Haurren eta nerabeen eskubideak bermatzea ez da bakarrik Udalaren edo zenbait teknikariren erantzukizuna. Oso ongi lan eginda, eta elkarlanean arituta ere, ezingo luke inoiz helburu hori Udalak bakarrik lortu. Ardura partekatua da, gizarte osoarena: udalarena, herriko eragileena, hezitzaile guztiena, gurasoena, eta oro har, herritarrena.

Eskubideak bermatzeko ardura guztiona denez, denon artean zehaztu beharko da zein arlotan landu nahi den, nola eta zertarako.

2008ko adierazpen instituzionalaren ondorioz, alkateak plana martxan jartzeko agindu zuen. Plan hori garatzeko ardatz nagusia sailarteko lan-mahaia da.

Pasaian sailarteko mahaiak hartuko du Unicefen Haurren lagun diren Hirien programaren lanketaren, jarraipenaren eta ezarpenaren ardura.

Sailarteko lan-mahaia

Sailarteko mahaiko partaideak honako hauek dira:



- Alkatea
- Euskara Saileko teknikaria
- Gizarte Ekintza Saileko bi teknikari
- Berdintasun Arloko teknikaria
- Gazteria Saileko teknikaria
- Kirol Saileko teknikaria
- Udaltzaingoko **teknikaria**
- Migrazio eta Aniztasun Arloko teknikaria
- Kultura eta Hezkuntza Saileko teknikaria
- Eskubidean planaren koordinatzailea

Alkateak dauka sailarteko mahaiaren ardura politikoa. Hark ezartzen ditu lan-ildoak eta hari dagokio azken erabakiak hartzea. Gainerako udal sailletako teknikariek, berriz, ardura tekniko bera dute.

Alkatetzak izendatu zituen sailarteko mahaiaren partaideak eta horiek behin betikoak dira. Hala ere, jorratzen ari diren gaiak hala eskatzen badu, beste sail batzuek ere parte hartzeko aukera dute.

Sailarteko mahaiak bi oinarri ditu: **elkarlana eta demokrazia parte-hartzailea**. Filosofia horretan oinarrituta, udaleko sailen arteko ekimenaz gain, behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa izan da gizarte-sarea sortzea eta sentsibilizatzea.

Sailarteko mahaiak martxan dago 2008az geroztik. 2017ko azaroko plenoan, sailarteko mahaiaren egitura aho batez onartu zuen Udalbatzak, dekretu bidez.

Mahai hau astean bitan biltzen ari da 2008az geroztik. Beraz, urtean, batez beste 24 bilera egiten dira.

ERAGILEEKIN KOORDINATZEKO ORGANOA (KANPO KOORDINAZIOA)

Eskubidean planaren oinarriak dira parte-hartzea, elkarlana eta ardura partekatua. Plan hau ez da Udalaren plan bat, Pasaian haur eta nerabeekin harremana dugun eragile guztion plana da, haur eta nerabeen eskubideen bermea guztion ardura baita.

Eragileen koordinazio eta elkarlanerako, hainbat erabakigune jarri genituen martxan 2008an:

- Sailarteko mahaiak (zenbait udal sailen barne mailako koordinaziora bideratutako mahaiak da).
- Elkarleen gunea
- Hezkuntza gunea
- Udal zerbitzuen gunea (2013an jarri zen martxan)
- Haur eta nerabeen parte-hartzerako guneak (azken urtean gauzatzen ari garena)

Gizarte-sarearen antolaketa

Gizarte-sarea bultzatzeko, eragileekin elkarlana gauzatzeko, hitz egiteko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta elkarrekin erabakiak hartzeko, gune hauek jarri ziren martxan 2008an:

ELKARTEEN GUNEA	
PARTAIDEAK	HELBURUA
Haurrekin eta gazteekin lan egiten ari diren aisialdi, kultura eta kirol-elkartek batzen dituen gunea. Guztira 17 bat elkartek parte hartzen dute.	Haur eta nerabeekin lanean diharduten eragileen arteko harremana sendotzea eta elkarte horiek dituzten behar eta zailtasunei erantzuten saiatzea.

HEZKUNTZA GUNEA	
PARTAIDEAK	HELBURUA
4 ikastetxek osatzen dute: Pasaiaiko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroa, Karmengo Ama ikastetxea, Pasaia-Lezo Lizeoa eta La Anunziata ikastetxea.	Ikastetxeen arteko harremana sendotzea eta horiek dituzten behar eta zailtasunei arlo komunitariotik erantzuten saiatzea. Bi edo hiru hilean behin biltzen da.

UDAL ZERBITZUEN GUNEA	
PARTAIDEAK	HELBURUA
Musika eskola, ludotekak, gaztelekuak, kale hezitzaileak, liburutegiak, antzerki eskola, kiroldegiak, harrera on gunea, eta kuadrilategi udal zerbitzua.	Adingabekoekin esku-hartze zuzena duten udal zerbitzuen arteko harremana sendotzea, elkarlana bultzatzea, eta horiek dituzten behar eta zailtasunei heltzea. Hilero biltzen da.

Gune horiek erabaki-guneak dira. Mistoak dira, alegia, teknikariak zein eragileetako ordezkariak joaten dira eta elkarlanean eta parte hartzeko demokrazian oinarritzen dira.

Lan-metodologia horrek aukera ematen die haur eta nerabeekin diharduten udal arloei eta herriko eragileei, gertutasunez eta ardura partekatuz jokatzeko eta elkarren arteko harremana estutzeko. Era honetan partaideen ikuspuntuak osoagoak izatea lortzen da.

Laburbilduz, jorratzen den gaia edozein dela ere, metodologia horrek errealitatera hurbiltzen laguntzen dio toki-administrazioari. Gainera, erantzunkidetasunaren printzipioan ere oinarritzen denez, hurrekiko eta nerabeekiko hurbiltasuna eta konpromisoa handiagoak dira.

Erabaki-gune horiei 2017an **haur eta nerabeen gune edo organoak** gehitu

zaizkie. Haur eta nerabeen guneak 2016an abiatu baziren ere, 2017ko abenduan haur eta nerabeekin saioak egiten ari dira, organo horien funtzionamendua erabakitzeko.

INFORMAZIO EKONOMIKO ZEHATZA: AURREKONTUAREN GAUZATZEA

- Eskubidean planaren aurrekontua 2017rako: 53.000€
- Eskubidean planaren aurrekontua 2018rako: 53.000€

- Hainbat zinegotzigotatik haur eta nerabeentzako ekintzak antolatzeko bideratu diren aurrekontuak:

Zingotzigoa	2017ko aurrekontua	2018ko aurrekontua
Gizarte Ekintza	334.568 €	334.568 €
Berdintasun Arloa		
Migrazio eta Aniztasun Arloa	71387,94	71387,94
Gazteria	525.691 €	547.199 €
Kultura eta Hezkuntza	?	
Kirola	89.000+kirol ikastaroak	89.000+kirol ikastaroak
Euskara	28.000+ktg+6.500€+ 15.050	
Eskubidean plana	53.000 €	53.000 €
GUZTIRA		

BALORAZIO OROKORRA ETA ONDORIOAK

Ardura partekatuaren bidean

Eskubidean planaren garapenean egunero sortzen dira zalantzak, zailtasunak eta hamaika galdera. Nola lortu planarekiko eragile guztion benetako ardura eta parte-hartzea?

Behin eta berriz azpimarratzen dugu haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko ardura guztiena dela. Hori da Pasaiaiko planaren funtsa. Baina, era berean, udalak abiatutako plana da eta nahiz eta elkarlanerako erabaki-guneak sortu, motorra udal teknikariek osatzen duten sailarteko mahaia da oraindik ere.

Horixe da planaren erronka nagusi orokorra: planarekiko ardura partekatuaren ideia eragile guztiek barneratzea, berdintsu ulertzea eta sentitzea.

Jakin badakigu hau prozesu bat dela, eta bide hori poliki poliki egingo dugula. Prozesu horretan oso garrantzitsua da metodologiarekin asmatzea. Etengabe egokituz eta hobetuz joan behar da, erritmoak errespetatuz eta bakoitzak identifikatzen dituen beharrei entzunez eta erabakiak adostuz. Hori etengabeko erronka da prozesu honetan. Une honetan, hain zuzen ere, funtzionamenduari buruzko gogoeta egiten ari dira elkarteen gunean.

Dena dela, orain arteko ibilbidea oso ondo baloratzen da. Egindako bidean lortutako emaitzak ez dira gutxi izan. Lorpenen artean nabarmentzekoa da Pasaiaiko hurrekin eta nerabeekin lanean ari diren eragileen arteko gertutasuna lortu dela, elkarren arteko komunikazioa hobetu dela, elkarlanerako bidea zirriborratu dela.

Erabakiak hartzeko parte-hartze gune sortu dira, horien artean aipagarriena haur eta nerabeen gunea. Lanean jarraitu behar dugu, Pasaiaiko adingabekoekin diharduten herriko eragileen arteko sarea etengabe sendotzeko. Bide honetan asko dago oraindik egiteko, bidelagun gehiago gehitu behar dira gizarte sarera. Bidea egiten ari gara.

Datozen hilabeteetan Pasaiaiko Udalak, eta zehazki Eskubidean planak, honako erronka hauek ditu eskuartean:

- ✓ Pasaiaiko haur eta nerabeen planaren, eta ondorioz Eskubidean planaren helburu eta norabidea eragile guztiekin adostu eta herrian gizarteratzea. Partaidetzazko ikerketa soziologikoa egiten ari gara.
- ✓ Haur eta nerabeen gunea sendotzea, arautzea eta egonkortzea. Herriko haur eta nerabe guztiengana iritsiko den organoa izatea nahi dugu,

adin txikiko guztiek bertan parte hartzeko aukera dutela sentitu behar dute.

- ✓ Eskubidean planaren bitartez jasotako lorpenak eta ikasitakoak sistematizatzea. Burutzen ari garen ikerketa soziologikoak aukera emango du Pasaia Udaletik haur eta nerabeen eremuan egiten den lana sistematizatu eta duen inpaktua neurtzeko. Honek, haur eta nerabeen arloko ekintza plana egoki ebaluatzeko tresnak eskainiko dizkigu.
- ✓ Hezitzaileen prestakuntza: haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko bidean lerro estrategikoa da prestakuntzarena. Pasaian haur eta nerabeekin lan egiten dutenekin hainbat prestakuntza saio antolatzen dugu. Gure helburua da prestakuntza hori sistematizatu eta egituratzea.
- ✓ Balio hezitzaileak zeharka lantzea.
- ✓ Planaren komunikazio estrategia hobetzea.

TOKIKO GOBERNUAK EMAN BEHARREKOTZAT JOTZEN DITUEN BESTE DATU BATZUK

Eskubidean plana hainbat toki eta gunetan aurkeztu da azken urteetan:

- ✓ **UDALTOP udaletako euskara-zerbitzuen IV topaketa.** 2012ko martxoaren 22an, **Lasarte-Oriako** Manuel Lekuona Kultur Etxean. *"Elkarlanerako eredu bat Pasaia haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko"*.
- ✓ **Harrera eta Bizikidetzak: eredu propioa eraikitzen.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostiako San Telmo museoan 2013ko urriaren 4an. *"Harrera eta Elkarbizitza Pasaian"*.
- ✓ **Azkoitiko Udala eta Loiola Berrikuntza Fundazioa.** Aniztasunari eta hezkuntzari buruzko jardunaldiak. 2013ko ekainaren 20an.
"Del programa de prevención e intervención en situaciones de riesgo para el desarrollo psicosexual en niños/as y jóvenes de Pasaia al plan para garantizar los derechos del colectivo infanto-juvenil en Pasaia"
- ✓ **13th ISPCAN European Regional Conference on Child Abuse and Neglect.**
9/15/2013 to 9/18/2013. **Dublin.**
OS70.001 *"Del programa de prevención e intervención en situaciones de riesgo para el desarrollo psicosexual en niños/as y jóvenes de Pasaia al plan para garantizar los derechos del colectivo infanto-juvenil en Pasaia"* 11:30, 17 September 2013 Clanwilliam Suite".
- ✓ **XII Congreso internacional de Infancia Maltratada. FAMPI.25** aniversario de la convención de los derechos del niño. Construyendo perspectivas: protección a la infancia, enfoque de derechos y óptica legal. **Bilbao.** Viernes 7 de noviembre de 2014 Simposio [Aula 153]
"Del programa de prevención e intervención en situaciones de riesgo para el desarrollo psicosexual en niños/as y jóvenes de Pasaia al plan para garantizar los derechos del colectivo infanto-juvenil en Pasaia."

- ✓ **II. Jardunaldia. Herri hezitzailea, eskola herritarra.** HIK HASI. Donostiako Kursaal jauregian, 2015eko apirilaren 24an: "Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana"
- ✓ **Deustoko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea.** Gizarte Laneko Gradua 2012ko otsailaren 16an, 2014ko martxoaren 21an, eta 2015eko maiatzaren 8an.
- ✓ *"Del programa de prevención e intervención en situaciones de riesgo para el desarrollo psicosexual en niños/as y jóvenes de Pasaia al plan para garantizar los derechos del colectivo infanto-juvenil en Pasaia"*
- ✓ **UDALTOP udaletako euskara-zerbitzuen IV topaketa.** 2016ko apirilaren 21 eta 22an, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean.
"Kirola D ereduan noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna sustatzeko", "Nola eragiten ari gara gaztetxoek kirol jarduerako hizkuntzan gure herrian"
- ✓ **UNICEFek** antolatutako XI AULA MUNICIPAL POR LOS DERECHOS DE LA INFANCIA DEL PRINCIPADO DE ASTURIAS, Avilés, 2016ko maiatzaren 19 eta 20an.
"Buenas practicas en Ayuntamientos de fuera de Asturias" izeneko mahai inguruan parte hartzea.
- ✓ **Gaztematikako** gune iraunkorrean egindako aurkezpena (Gipuzkoako Foru Aldundia). 2017ko martxoaren 1ean.